

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko maiatzaren 11n • II. urtea • 21. zenbakia • DOAN BANATZEKO



Goienka2a

Debagoieneko komikilarien arkatz zorrotza

KIROLA

Ander Corcuera: Renault Formulako auto gidari arrasatearra /10

ANTTON KARRERA

"Jeltzaleek, EAkoek, sozialistek eta guk geuk osatutako gobernua izango litzateke onena" /9

OÑATI

Bedoña auzoko Santa Eulalia eliza goitik behera berritu dute

Arrasateko Bedoña auzoko Santa Eulalia elizak 400 urte inguru ditu, baina gazte-gaztea dela dirudi. Ondo argizatuta, egurrezko eta harrizko jantzia zeharo itxuratuta dauzka orain, goitik behera berritu dute eta. Hala ere, hori ez da beti horrela izan. Are gehiago, azken 100 urteak inork ikutu barik igaro ditu. Eta, jakina, azkeneko elizaren egoera ez zen ona. /5

BERGARA

Erraldoi berriak estreinatuko dituzte herriko jaietan

Eguaztenean aurkeztu zuten Bergaran erraldoi bikote berria. Orain arte baseritar bikoteak osatu duen konpartsa janztera datoz. Urteetan izan du udalak erraldioen konpartsa handitzeko gogoia. Azkenik, helburua bete du. Kukuma taldeko panpina egileek bi erraldoi berri egin dituzte, eta eguaztenean aurkeztu zituzten Santa Ana parkean. /4

LASTERKETA

Arrasate-Oñati lasterketa zapatuan

Arrasate-Oñati lasterketaren XIX. ekitaldia jokatu da zapatuan. Partaideek 11 kilometro eta 300 metroko ibilbidea bete behar dute. Lasterketa 18:30ean hasiko da eta izena ematea irteeran bertan egin daiteke, Arrasateko Garibai pasealekuan, 18:15ak arte, edo Oñatiko Foruen Enparantzan, 17:00ak arte. Oñatitik Arrasatera autobusa egongo da, 17:00etan. /16

JOAN DEN URTEAN LORTUTAKO ARRAKASTAREN ONDOREN, BIGARREN ALDIZ ANTOLATU DUTE AURTEN

Debagoieneko turismo azoka, Feritur, asteburuan Bergaran

- *Aranzadi ikastolaren patioan kokatuko da azoka*
- *Hogei erakusmahai inguru jarriko dituzte karpapean*
- *10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara zabalik*

Feritur, Debagoieneko II. Turismo Azoka, Bergarako Aranzadi ikastolako patioan egongo da ikusgai asteburuan zehar, hantxe jarriko duten karpa handi batean hain justu ere. Debagoieneko Mankomunitateak eta Halcon Bidaia agentziak antolatu dute turismo feria hau. Handizkariak eskaintzen dituzten pake turistikoak, hainbat tokitarako bidaiak eta Debagoieneko eskaintza turistikoak ikusi ahal izango dira. /3



Feritur-eko antolatzaileak, Halcon Bidaia agentziakoak eta Mankomunitateko turismo arduradunak, ferriko karpan. ENEKO AZKARATE

Basabe Pol. F2 - Tel: 943 79 81 66 - E-mail: ofiservis@interbook.net - ARETXABAETA

Inpresio Digitalen Zerbitzuak

OFISERVIS

- **Kartelak, Posterrak, koloretan mugarik gabeko neurrietan**
- **Bukaerak:** Kartoi-luma, plastifikazioak, enmarkazioak
- **Euskarriak:** Argazki papera, biniloa, mihisea, banderaxkoa, adhesiboa, poliester argiduna, e.a.

ORAIN!
Deba bailaran!

PC - MAC

Dena gertu domekako hauteskundeetarako

Domekakoak hauteskunde historikoak direla aipatu dute behin eta berriz. Hedabideen artean, behintzat, sekulako ikusmina sorrarazi dute eta parte hartzea inoiz baino handiagoa izango dela aurreratu dute. Ikusi behar. Debagoienean 54.331 lagunek izango dute botoa emateko aukera, horietatik, 1.325 lehenengo aldiz. Bederatzi herritan, 81 hautes-mahai izango dira domekan.

Botoen atze

ERREDAKZIOA

Maiatzaren 13a bertan dauka gu eta hauteskunderi dagozkien alderdien kanpainak gaur gauean amaituko dira. Azkenengo asteetan, Euskal Autonomia Erki-degoko eta Espainiako Estatuko hedabide guztiek politikarien esanen inguruko bonbardaketa itzela egin digute, eta dagoeneko halabeharrez hautagai ia guztien aurpegi eta izenak buruz ikasi ditugu, baita kanpainan hautagaiek proposatutako «formula ezin hobeak» ere.

Era berean, beste askok lanean dihardu ezkutuan, aurpegia eta irudia eman baino, gauza txiki ugari egunero eginez; gehienak, zarata gutxiago ateraz, baina domekarako guztia gertu egon dadin lanean; eta beste asko bere alderdiaren aldeko botoa herri-tarrei banan-banan eskatuz eta kalean etengabeko lana eginez.

Ezkutuan lan egiten dutenen artean, udal brigada eta udal idazkariak nabarmen genitzake: lehenak hauteskunde-eskolak prestatu, urnak txukundu eta urna, boto eta kabinak dagokien lekura erama-

nez. Bigarrenak, berriz, hauteskunde egunean gerta daitezkeen arazo eta erreklamazioak konpontzeko lan egingo dute, baita ere mahaietan dagozkien aktak bete daitezken.

Hain ezagunak ez direnak militante eta ahaldunak dira. Horiek kalean bertan egiten dute lan, herriz herri hautesleak konbentzitu eta beren alderdiaren mezu eta presentzia kalean ziurtatzen dute, hainbat prozedura erabiliz. Bozgorailuak, kartelak, gozokiak, arrosak, mitinak prestatzea... era askotako trikimailuak erabiltzen dituzte helburua lortzeko. Ahaldunek, berriz, euren alderdia ordezkatzeko dute mahai guztietan.

Halabeharrez eta zozketa bidez 08.00etatik aforlardu arte hauteskunde-mahaietan egon beharra egokitu zaien 243 debagoiendarrak ere hor daude, presidente eta laguntzaile lanak betetzen eta hauteskunde prozesua dagokion moduan joan dadin ziurtatzen.

Domekan, Debagoieneko 54.331 hautesleek botoa emateko aukera izango dute udal langile, ahaldun, militante eta mahai ordezkarietarako.

Udaleko langileak arduratzen dira hautes-eskolak prest egon daitezkeen eta ezer falta ez dadin.




Domeka aurretik/Udal brigadak

Bailara osatzen duten bederatzi herrietako udal brigadek fin dihardute hauteskunde-eskolak domeka goizerako prest egon daitezkeen. Horretarako, biltegietan gordetako urnak txukundu eta eskoletara eraman beharko dituzte, baita botoak, gutun-azalak, kabinak eta, kasu batzuetan, mahaiak ere. Herri gehienetan egubakoitz eta zapatu artean eramango dute beharrezko guztia, eta lan hori betetzen, gutxi gorabehera, bina langile ari dira herri bakoitzean.



Elvira Berrio-Otxoa/Botoa, postaz

Elvirak Arrasateko EAJko egoitzan esan digunez, "Batzokira etortzen da jendea gutun bidezko botoa egitera". Telefonoz harremanetan jarri ostean ere joaten dira gaixoen etxeetara, eta han, beti ere notario baten aurrean, gaixoen botoa eman ahal izaten du. Gero, gutuna postetxera eramaten du ahaldunak eta hauteskunde egunean postariak eramaten du aurrez jakinarazten dioten mahaira. "Bertan egin ezin duen lagun batek ere bozkatu du gutun bidez".



Angel eta Iñigo/Militanteak

Angel eta Iñigo buru-belarri dabilta EHren aldeko botoa eskatzen, bozgorailu eta guzti, autoan, Bergaran. Izatez, euren alderdia da kalean lan gehien egiten duena, baina Debagoienean hainbat pertsona ezezagun itzalean lan egiten aritu dira azkenengo asteetan kartelak jartzen, bozgorailuekin, gozokiak banatzen, edo mitin zein hitzaldien prestatketa guztiak egiten Hedabideen bitartekoa baino, herritarren alboko kanpaina egin dute militanteok.



Miren Josu Arrazola/Kazetaria

ETBrako PSE-EE alderdiaren kanpaina jarraitzen ari da Miren Josu Bergaran bizi den kazetaria: "politikoak asko errepikatzen dira eta azkenerako kazetariok lehendakariaren esaldiak buruz dakizkigu. Kosta egiten zait kanpainaren eragina ulertzea baina alderdiek sekulako garrantzia ematen diote eta zerbaitetatik izango da. Inoiz baino komunikabide gehiago ari dira kanpainaren jarraipena egiten". Politikoa ezagutzera iristea zaila dela dio.




Ainhoa Goenaga/Udal idazkaria

Arrasateko Udaleko idazkaria da. Bailarako beste herrietako ordezkarietarako moduan, hauteskunde egituraketa koordinatzen dihardu. Domekan bertan jaso daitezkeen erreklamazioak —batez ere, erroldarekin lotutakoak— jasotzen ari gara, goizean goiz hauteskunde-mahaiaren eraketaren aurrerantzean egin eta iluntzean zenbaketa egin beharko dituzte, udal prozeduraren ziurtasuna bermatuz hauteskunde prozeduraren jarraipena egiten dute eta.

alddea

Zozketen bidezko 243 lagunek bailarako 81 hautes-mahaietan jardun beharko dute derrigorrez.



Pello Urizar/Kontu-hartzaile lanak

Hemezortzi urte zituenetik dihardu EAko Pello Urizarrek kontu-hartzaile lanetan. Mahaiko agintadunen laguntzaile izatea da bere eginbeharra. Lehen arazoak izaten ziren kontrol falta zela eta, baina gaur, berriz, ez dago horretarako arazorik. Jeneralean, boto kontaketan ere parte hartzen dute, lana errazteko asmoz. Kontu-hartzaile lanetan diharduten lagunek, 08:00etatik 20.00ak arte egon beharko dute hauteskunde-mahaietan, botoak zenbatzeko denbora luzea ematen ez badute behinik behin.



Aitor Zabalo/Mahaiko presidentea

Datorren domekan, Aitor Zabalo arrasatearra hauteskunde-mahai batean izango da lehen aldiz. Aitorren moduan, beste 80 presidente egongo dira bailarako hauteskunde eskoletan, eta horiek prozedura koordinatu behar badute ere, politikoez gain, mahai bakoitzean bina laguntzaile izango dituzte. Presidente eta laguntzaileak guztira 243 lagun-zozketen ondorioz halabeharrez egon beharko dute mahaietan. Horrez gain, ordezkokoak ere goiz jaiki beharko dira domekan, badaezpada.

Hauteskundeeng inguruko egutegia

urtengo otsailaren 20an egin zuten lehendakariak hauteskunde-egutegia zehaztu zen. Apirilaren 4tik 9ra bitartean ezarri zuten hautagaien zerrendak aurkezteko epea eta 11n argitaratu zituzten ofizialki. Hauteskunde-kampaina apirilaren 27tik maiatzaren 11ra arte izan da. Gaur gauertan amaituko da, beraz. Bihar, zapatua, hausnarketarako eguna izango da eta etzi, bozketaren eguna. Maiatzaren 7a, hau da, astelehena, izan zen inkestak eta galdeketak argitaratzeko azken eguna. Hauteslekuak domeka goizeko 08:00etan zabalduko dituzte eta 20:00etan itxiko. Aurretik, hala ere, mahaiaik eratuko dira: goizeko 08:00etarako hauteslekuetan egon beharko dute presidentek eta bi mahaikideek, eta baita hauen

ordezkoek ere, bakoitzetik bina, hau da, sei lagun. 08:30erako osatu beharko dituzte mahaiaik. Arazorik egonez gero, eta goizeko 10:00etarako mahaiaik osatuko ez balira, hurrengo bi egunen barruan egingo lituzkete hauteskundeak mahai horietan. Hauteskunde-mahaietan egon behar duten presidentea eta bi mahaikideak aukeratzeko zozketak apirilaren 27an egin zituzten udaletan. Mahaietan egotea egokitu zaienei 11.000 pezetako dieta ordainduko diete.

Erroldatuta dauden tokietan botoa ematea ezinezko dutenek, postaz eman ahal izango dute. Aurten, inoiz baino eskari gehiago egin dituzte botoa postaz emateko. Martxoaren 20tik maiatzaren 4ra arte zen eskariak egiteko epea, eta botoa bidaltzeko azken eguna, berriz, maiatzaren 10a, hau da, atzo, eguna.

Boto kontaketa, hauteslekuak itxi (20:00etan) eta berehala hasiko da, eta bukatu bezain laster hauteskundeetako agiri sorta, 4 estalkitan sartuta, prestatu eta epaitegira eraman beharko dute. Emaitzak 23:00etarako-edo jakingo ditugu, baina behin betiko emaitzak, posta bidezko botoak-eta gehituta, maiatzaren 18an, hau da, datorren egubakoitzean, emango dituzte jakitera.

Ordezkaritza lortuko duten alderdiez gain (EAJ, EA, PP-UA, PSE-EE, EH eta IU-EB), beste batzuk ere aurkeztu dira. Gipuzkoarrek, Alderdi Humanistari (PH) eta Karliten Alderdiari (EKA) ere botoa emateko aukera izango dute. Azken hau (EKA) ez da Araban aurkeztu. Bizkaian, horiez gain, Partido del Karma Democrático (PKD) eta Trabajadores por el Diálogo (TD) ere aurkeztu dira.

Bailaran, labur

HAUTESKUNDEAK

54.331 debagoiendarrek izango dute botoa emateko aukera

Iaz, martxoan, Espainiako Gorteetarako egin zirenetan baino 38 debagoiendar gehiagok izango dute botoa emateko aukera domekan. Lehen aldiz bozkatzeko eskubidea izango duten gazteak, berriz, 1.325 izango dira. Hauteskunde-kampaina gaur amaituko da. EHK mitina antolatu du Bergarako San Martin plazan, 20:00etan. Jon Salaberria legebiltzarkidea eta Mireia Unamuno, Antzuolako alkatea eta Gipuzkoako zerrendan seigarrena, izango dira hizlari. Bestalde, astelehenean, Arnaldo Otegi eta Xabier Zubizarreta izan ziren Arrasateko Seber Altuben, eta zapatuan, Anguita, Madrazo eta Karrera Ezker Batukoak, Uarkapen. /ENEKO AZKARATE

TURISMOA

Feritur, Debagoieneko turismo azoka, Bergaran asteburuan

Feritur, Debagoieneko II. Turismo Azoka, Bergarako Aranzadi ikastolako patioan egongo da ikusgai asteburuan, hantxe jarriko duten karpabatean hain justu ere. Debagoieneko Mankomunitateak eta Halcon Bidaiak agentziak antolatu dute. Handizkariak eskaintzen dituzten pakete turistikoak, hainbat tokitarako bidaiak eta Debagoieneko eskaintza turistikoak ikusi ahal izango dira. Berritasun nagusia horixe da: bailara osotasunean hartuko duen eskaintza turistikoa komertzializazioa. Hogei erakusmahai inguruk osatuko dute azoka: Disney, Futuroscope eta Costa Cruceiros, besteak beste. /MONIKA BELASTEGI

EPAIKETA

Torturapean deklaratu izana salatu dute epaituek

Astelehenean, lau debagoiendarrek epaiketa izan zuten Madrilan. Karmen Irizar antzuolarrari bost urte eta sei hilabeteko zigorra ezarri diote eta Pili Agirre bergararrari, bi urtekoa. Axu Kardenal atxabaltarra eta Mikel Berasategi bergararra, ostera, absolbitu egin dituzte. Laurek torturapean emandako informazioa euren aurka erabili izana salatu dute. Baita fiskalak eskatutako zigorra "gutziz puztuta" egotea ere. Fiskalak honakoa eskatzen zuen: Mikel, Pili eta Axurendako bederatzi urte eta Karmenendako, 20. Baina "datu gutxi eta nahasiak zituen aitzakiarekin, tratua proposatu zion fiskalak gure abokatuari, eta onartu egin dugu". 1998. urtean atxilotu zituzten, ustez talde armatuarekin kolaboratzeagatik. Bost egunean isolatuta eduki eta torturatuak izan ostean, Carabanchelen espetxeratu zituzten. Han hainbat hilabete eman ondoren, fidantzepean kaleratu eta epaiketaren zain egon dira, "horrek dakarren kontrolarekin". /M.B.

KONTRIBUZIOA

Udal zergak udaberrian ordaindu beharko dira aurten

Orain arte irail hasieran ordaintzen bagenuen ere, aldatu egin dute ordainketa data. Aurten, maiatzaren 15ean hasi eta uztailearen 2a arte ordaindu beharko dugu udal kontribuzioa. Aldaketaren arrazoia da balio katastral berrien jakinarazpena udazkenean egin behar dela. Hori horrela izanik, balio katalalal eta kontribuzioak batera ez izateko, aldatu egin dute azken horren ordainketa epea. Datorren urteari begira, seguruenik, aurtengo epealdi berrian ordaindu beharko da kontribuzioa, nahiz eta oraindik zehaztu barik dagoen. /M.B.

BERGARA

ERRALDOI BERRIAK

Bi erraldoi estreinatuko dituzte Pazkoetan egingo duten alardean

XIX. mende hasierako kaletar bikotea irudikatzen dute

MONIKA BELASTEGI

Eguaztenean aurkeztu zuten Santa Ana parkean erraldoi bikote berria. Orain arte, baserriar bikoteak osatu duen konpartsa janztera datoz.

Urteetan izan du udalak erraldioen konpartsa handitzeko gogoia. Azkenik, helburua bete du. Kukuma taldeko panpina egileek bi erraldoi berri egin dituzte, eta eguaztenean aurkeztu zituzten Santa Ana parkean.

XIX. mende hasierako emakume eta gizonezkoa dira: hiru metro eta 40 kilo ingurukoak. Udalak orain arte bi erraldoi zituen: bikote baserriarra. Kalerikoa bikote dotorearekin konpartsa osatu nahi izan dute.

XIX. mendeko janzkera kopiatzeko orduan, Eulalia de Abaitua, garai hartako argazkilariaren irudietan oinarritu dira egileak. Emakumezkoaren kasuan, Eulalia de Abaitua beraren argazki batean.

Gauzak horrela, konpartsak, lau erraldoi, zazpi buruhandi eta lau kiliki izango ditu aurrerantzean. Gainera, buruhandi bakoitzari janzkera berria egin diote.



Erraldoi bikotea Santa Ana jauregiaren lorategian aurkeztu zuten.

MONIKA BELASTEGI

Erraldoi berriak Pazkoetako domekan egingo duten alardean estreinatu dituzte. Arrasate eta Oñatiko konpartsak ere gonbidatu dituzte.

DRUGA-MENPEKOTASUNA

Udalak 12 eta 18 urte arteko gazteen droga-menpekotasunari buruzko datuak eman ditu jakitera aste honetan.

Datuen arabera, Bergarako gazteen artean nahiko hedatua

dago tabakoa, alkohola eta porroaren kontsumoa. Kokaina eta diseinuzko droga bezalako kasuan, kontsumoa %3 da. 535 gazteren artean egin du Siadecok azterketa, eta datu orokorrak EAEn 1996an jasotako antzerakoak dira, nahiz eta Bergaran porroa gehiago kontsumitzen den.

Prebentziorako, esparru hauek landuko ditu udalak, besteak beste, familia, ikastetxeak eta aisialdia.

ANTZUOLA

HAUTESKUNDEAK

Domekan 1.636 antzuolarrek eman ahal izango dute botoa

Bi hauteskunde-mahai egongo dira udaletxe osoko bilkuren aretoan

AINTZANE IRIZAR

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egingo dira datorren domekan, maiatzaren 13an. 1.636 antzuolarrek izango dute botoa emateko eskubidea, horietatik 19 lagunek lehendabiziko aldiz. Mireia Unamuno alkatea, EHko zerrendan seigarren tokian aurkeztu da; beraz, legebiltzarkide izateko aukera dauka. 1998an izan ziren azkenengo aldiz Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak; orduko hartan 1.622 lagunek osatzen zuten hautesle-errola, eta parte hartzea %81 izan zen Antzuolan. EH alderdiak jaso zuen boto gehien, 536, hain zuzen ere; EAJk 346; EAK 154, PSEk 161 eta PP alderdiak 76, besteak beste.

Ohi bezala, bi mahai egongo dira udaletxe osoko bilkuren aretoan. Honako hauek izendatu dituzte bi mahaiak osatzeko: lehendabiziko mahaian, A mahaian, Ana Bella Delgado Diez izendatu dute presidente; lehenengo boka-

la Desiderio Almena Pecos izango da, eta bigarren bokala, berriz, Asier Etxaniz Nuin. B mahaian presidente Maider Zabaleta Urretia izango da; lehenengo bokala Maria Blanca Legorburu Aristi, eta bigarren bokala, berriz, Jesus Maria Laskurain Lizarralde. Goizeko 9:00etan irekiko dituzte hauteskunde-mahaiak eta iluntzeko 20:00etan itxi.

BIHARAMUNEAN, DATU GUZTIAK 'GOIENKARIA'N

Goienkariak ale berezia kale-ratuko du biharamunean, astelehen goizean, hain zuzen ere. Hantxe, EAEko datuez gain, Debagoieneko herri guztietako

emaitzak, iritziak, domekan gertatutakoak eta hainbat kontu jasoko ditu. Antzuolan, honako toki hauetan eskuratu ahal izango da *Goienkaria*: Kalegoiko kioskoan, Larrea tabernan, Alzartea, Martin eta Antigua okindegietan, udal-etxean, Elayn eta Matxarreka eta Goizpe-erreko jantokietan.

Zertzelada

Goienkariak ale berezia kaleratuko du astelehen goizean. Hantxe, EAEko datuez gain, Debagoieneko herri guztietako emaitzak, iritziak, eta hainbat iritzi jasoko dituzte

ARETXABAETA

PRESOekin ELKARTASUNA

Preso politikoei elkartasuna adierazteko pintxoak egingo dituzte hainbat koadrilakoek

Pintxoak zapatuero egongo dira salgai

AMAGOIA LASAGABASTER

Aretxabaleako Amnistiaren Aldeko Batzordeak "Elkartasuneko pintxoak" izeneko kanpaina jarri du abian. Ekimen honen helburua, euskal preso politikoguztiek eta horien senideei elkartasuna adieraztea da. Horretarako, zapatuero herriko koadrilak pintxoak gertatuko dituzte. Gero, herriko tabernan salduko dituzte 150 pezetan.

Batutako dirua presoek eta euren senitartekoei laguntza emateko izango da. Izan ere, Espainiako Estatuak darabilen dispertsio sistema dela-eta, senitartekoei diru dezente behar izaten dute presoari bisita egiteko. Aretxabaleako preso politikoa den Kepa Urrea, adibidez, gaur egun herritik 560 kilometrora dago. Ondorioz, senitartekoei bidaia bakoitzean, 72.000 pezeta gas-tua izaten dute hura ikusteko.

Maiatzaren 5ean egin zituzten lehenengo pintxoak, eta hilabete guztirako dagoeneko jendeak hartu du lan hori egiteko konpromisoa. Datozen hilabeteetan berriz, koadrila gehiago behar dituzte, eta herritarrek animatzeko deialdia egin dute.

ATZEGIKO FESTA

Oraingo zapatuan, Aretxabalean elkartuko dira Debagoieneko atzeratuak aldeko elkarte guztiak. Iaz Eskoriatzan ospatu zuten Atzegiko 40. urteurrena. Jaialdi hura oso arrakastatsua izan zen, horregatik, aurten Aretxabalean antzeko zerbait egitea pentsatu dute. Eguerdian herriko plazan elkartuko dira Atzegiko lagun guztiak, eta herrian buelta bat eman ondoren, Iturrigorri frontoian bazkaria izango dute. Bukatzeko dantzaldia eta opari bana-keta egingo dituzte. Guztira 200 bat lagun elkartzea espero dute.

OÑATI

KULTUR JARDUNALDIAK


Hainbat ekitaldi antolatu dituzte Mikel Aozarazako ikasleek

Kultur Jardunaldiak antolatu dituzten hirugarren urtea da

AINTZANE IRIZAR

Mikel Aozarazako ikastetxearen ekimenez hainbat ekitaldi antolatu dituzte maiatza eta ekainarako: serigrafia ikastaroa, bertso saioa, hitzaldiak, dantza afaria, zine-foruma... Denetik antolatu dute "Hegaldi berri bat hastera goaz irudimenez!" lelopean. Datorren astean bertan, hilaren 17an, arratsaldeko 19:30ean bertso saioa izango da Pago-Uso elkartearen Jon Maiarekin.

Martin Jauregiartzo irakasleak batek adierazi digunez, "kultur jardunaldi hauetako egitaraua ez da irakasleek ikasleendako antolatu dugun zerbait, ikasleek eurak antolatutako jardunaldiak dira". Horretarako irakasleen laguntza izan dute, baina ikasleek izan dira, 12 eta 16 urte bitartekoak, egitaraua osatu eta kontaktu guztiak egin dituztenak. Jauregiartzoren esanetan, "guretako oso inportantea



Jon Maia bertsolaria Pago-Uso elkartearen izango da eguenean.

EUSKALDUNOM EGUNA

da interaktibotasuna: adibidez, sorginei buruzko hitzaldi bat egongo da. Baina ez da hitzaldi soil bat izango. Izan ere, alde aurretik sorginen inguruko lan bat egin dute ikasleek, eta hitzal-

dian bertan sorginei buruzko hainbat testu ere irakurriko dituzte".

Jardunaldi hauek herri guztietari irekita daude, eta nahi duzaten edonork parte har dezake.

LEINTZ GATZAGA

ARRASATE

KONPONKETAK BEDOÑAKO ELIZAN

Guraso eta haurrei zuzendutako ekitaldiak, maiatz eta ekainean, Gurelen eskutik

Bedoña auzoko Santa Eulalia elizak jantzi berria estreinatu du

Baina lanak bukatu barik daude, eta dirua behar dute horretarako

UBANE MADERA

Bedoña auzoko Santa Eulalia elizak 400 urte inguru ditu, baina gazte-gaztea dela dirudi. Ondo argiztatuta, egurrezko eta harrizko jantzia zeharo itxuratuta dauka orain.

Hala ere, hori ez da beti horrela izan. Are gehiago, azken 100 urteak inork ikutu barik igaro ditu. Eta, jakina, azkeneko elizaren egoera ez zen batera ona.

Orain hain eder ikusten den egurrezko sabaia erortzeaz zegoen, arriskutsu. Baita paretetako egurra ere. Erretaula ere goitik behera garbitu eta argiztatu dute, eliza osoa moduan. Halaber, hormetako margoa ere estreinatu berria da, baita lurzorua ere.

Beherago jaitziz gero, aldare berria ikus dezakegu. Edo, behintzat, Santa Eulaliarako berria da; Pablo Letona parrokoak kontatu digunez, Kontzeziñoko mojek emandakoa da.

Korupea ere eraldatu dute, lehen baino argi eta leku handiagoa lortuz. Gauza bera egin dute jarlekuekin: apurtxo bat txi-



Erretaula ere goitik behera garbitu eta argiztatu dute.

UBANE MADERA

kitu, tokia egiteko. Eta gezi-leihoetan eta bestelako leihoetan ere konponketa lanak egiteaz gain, beirateak ipini dituzte.

Horrez gain, elizara sartu eta berehala, artelan baliotsu bat ikusiko dugu: garai erromanikoko harrizko ponteoa, berri-

berria eta ohorezko lekuan. Eta atarian, berriz, lehengo erlojua, 1814an Juan de Sugastik Mondragoen egindakoa, hori ere txukunduta.

Parrokoaren esanetan, oso pozik daude orain arte lortutako emaitzarekin.

BIGARREN ZATIA

Edozelan ere, orain arte egindakoa lanen lehenengo zatia izan da. Baina ez azkena, ezta gutxiago ere. Bigarrena ere egin dute, eta hirugarren bat geratzen zaie.

Bigarren zatian kanpandorrea konpondu dute. Edo zati bat, behintzat. Eskaileraren azkenengo zatia berri-berria da, baita kanpandorrearen teilatua eta erlojua ere.

Ia urtebete eman dute hori guztia egiten eta 16 milioi pezetan baino gehiago gastatu dute. Gipuzkoako Foru Aldundiak (7 milioi), Gotzaintzak (4 milioi), Bedoña auzoak (2'5 milioi) eta herriko udalak (2 milioi) eman dute dirua. Hortaz, oraindik milioi erdi pezetako zuloa du Bedoñako elizak. Gainera, oraindik dezente geratzen zaie egiteko: eskaileraren bueltan ipini beharreko beira eta kanpandorreko kanpoaldea, esaterako.

Eta, zer esanik ez, horretarako ere dirua behar dute, beste zortzi bat milioi pezetan, hain justu. Parrokoak adierazitakoaren arabera, Bedoñako elizak ez dauka kopuru hori eta Europako iturrietara jotzeko asmoa dute.

ELGETA

INGURUNE FISIKORA ETA KOMUNIKAZIORA IRISGARRIAGO

Gehien erabiltzen diren eraikinetara errazago iristeko modua

1997ko irisgarritasun legea aintzat hartuta egin dituzte lanak

IBAN ARANTZABAL

Basko Legebiltzarrak 1997an onartutako legeak agintzen duenari jarraituz, ezinduentzako atzapak egiten hasi dira. Horien artean udaletxera heltzeko bidea, politikiroldegirako bidea eta baita elizarako ere.

Lanok egitea iaztik zegoen pentsatua eta orain arte ezin izan dituzte egin ez delako aukitu lanotan jarduteko jenderik. Dirua ere iazko aurrekontuetatik ateratu dute eta milioi bat pezetan eraikitiko dute horretarako.

Dena den, Osasun Saileko Karmele Kortak adierazi digun moduan, irisgarritasuna errazteko laguntza tekniko ez da amaitzeko udalak egingo dituen lanekin. Zerbitzua badago partikularrendako ere. Doako zerbitzua da Basko Jaurlaritzak ematen duena. Sail honetan irisgarritasunaren gaineko kontsultak bideratu daitezke, arazoan ikerketa eta diagnosiak egin, lege eta arauen



Ezinduek atzeko atetik sartu ahal izango dute hauteskundeetan

IBAN ARANTZABAL

gaineko argibideak jaso, indarrean dauden dirulaguntzei buruzko argibideak jaso...

Kontaktua egitea oso erraza da. Doako telefono bidez egin daiteke 900.71.43.48 zenbakira deituta. Posta elektronikoa ere badute: bengoa@adir.es

Elgetako osasun zerbitzua

seguru dago oztopo arkitektoniko hauek kenduz ez diotela erru-beradun aukietan dabilen jendeari bakarrik lagunduko: bastoiarekin dabilzan edaduetuek, ikusmen arazodunek, ume txikiak aukietan erabiltzen dituzten gurasoek... gustura hartuko dute ekimen hau.

ARAMAIO

HAUTESKUNDEAK

Aramaioarrek hitzordua izango dute domekan ikastolan

1.219 lagun daude botoa emateko deituta

UBANE MADERA

Bihar goizerako guztia prest izango dute aramaioarrek hauteskundeetarako. Betiko moduan, bi mahai izango dituzte San Martin ikastolako jangelan. Aurten, 1.219 lagunek jaso dute urnetara joateko deia, iaz, martxoan, Espainia-

ko Gorteetarako hauteskudeetan baino 42 gehiagok. Bitxikeria moduan, aurten, 17 gaztek lehenengo aldiz emango dutela botoa.

Bestalde, badirudi oraingoan betetzen ari direla kartelak edozein lekutan ez jartzeko zinegotziek hartutako erabakia, kartelak dagoen taletan ipini dituzte eta.

Baliozkoa maiatzaren 1etik 31ra.

BALIO-TXARTELA

500
€ 3,00


Erregai ordaintzeko **SABECO**ko gasolindegian (Durango).

HAIN HAINBESTE HURBIL

Hipermerkatuan 10.000 pezetatik gorako erosketetan erosteko txartela eta txartel hau aurkeztuta.

SABECO
Hipermerkatuak
ZUGIAN PENTSATZEN DUGU

Zabalik

EDORTA
MENDIETA

Korapiloa

Euskal Herrian aspaldian darabilgun saltsa politikoak goibel samar nauka. Jarrerak gero eta banatuagoak ikusten ditut eta herriaren gehien-gera, erdian, kokoteraino eginda. Gainera, zenbat eta buelta gehiago eman, irtenbidea gero eta urrutia-gera ikusten dut.

Hori gutxi ez balitz, ETak aurrera jarraiz du bere estrategian. Zer lortu guran? Noren mesederako?

Nik biziki sinesten dut Euskadik autogobernura duen eskubidean, guk bezala inork ez baititu defendatuko gure kultura, hizkuntza, ekonomia eta gizartea. Gainera, garenara iritsi bagara, autogobernu esperientzia limitatu honi esker izan da. Gure hizkuntza inoiz baino sendoago dago. Gure ekonomia Europako beste guztien gainetik hazten da. Batez beste, bizi kalitatea Estatuko beste herrialde gehienetan baino altuagoa da gurean. Non geundeke, beraz, Estatutua bere osotasunean gauzatua balego?


Eta herriak nahi izanez gero, zergatik ez Estatutua eta marko juridiko-politikoak gaintu? Gure eskubidea da etorkizunean zer izan nahi dugun aukeratu eta inguruko herriekin zer harreman mota izan nahi dugun erabakitzea. Baina, herri honek ideologia eta sentsibilitate ezberdinak ditugun pertsonak batzen gaitu, eta guztioi dagokigun erabakia da hori. Horregatik, ezinbestekoa da diskurtsoak lasaitzea, besteak guregana hurbildu ahal izateko, horrelako proiektu batek aurrera egin dezan gaur duena baino atxikitze maila altuagoa behar baitu.

Eta, batez ere, indarkeria politikoarekin bukatu beharra dago, faktore horrek errealitate guztia distorsionatzen baitu eta ez dagoelako iraungo duen proiekturik indarkerian gauzatua bada. Ideiak eta proiektuak bakean, askatasunean eta errespetuan bakarrik defenda daitezke. Bakea proiektuaren gainetik dago. Horregatik, bake-rik ez dugun artean, ez gara gauza izango elkarrekin inora joateko.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com



Torturapean

Astehenean lau debagoiendar epaitu zituzten Madril: Karmen Irizar antzuolarra, Mikel Berasategi eta Pili Agirre bergararrak, eta Axu Kardenal atxabatarrak. Hauxe gain, beste hamar lagun izan dira epaituak. Euren aurka fiskalak duen bakarra, torturatuak izan eta gero lortutako polizia deklarazioa da. 1998an, atxilotu zizutenean, jasandakoen testimonioak bildu ditugu ondorengo lerroetan.

Axu Kardenal: "1998ko martxoaren 21ean atxilotu ninduten, 19:20 ziren. Ordu-tik, 3 egun pasa nituen inkomunikaturik eta tartean beste euskal herritarrek bezala, tortura fisikoak jasan nituen.

Lehendabizi, hemendik Madrilerako bidean, Gatzagan gelditu, katxeatu eta kolpekatu ostean atxilotzeko agindua sinatu nuen. Esposatu eta burua makurtuta eraman beharra neukan eta burua jaso gero jo egiten ninduten. Bestalde, tortura psikologikoa. Komisarian, konortea galdu arteko galdeketa ziren, burua hormaren kontra kolpekatuz, beraiek emandako kolpeak... Txabolera eraman ninduten eta konortea berreskuratutakoan galdeketa jarraitu zuten.

Ni lurrean, eta manta gainean nuela jotzen ninduten baita, markarik ez uzteko. Txarren poltsarekin pasatu nuen. Askotan jarri zidaten konortea galdu arte. Elektrodoak ere mingainean jarri zizkidaten baina ez zituzten konektatu. Bi gau komun nazkagarri batean pasa behar izan nituen.

Bai bidaian zehar baita komisarian ere, mehatxu eta tortura psikologikoez ere min handia ematen zidaten: Gurutze Iantzi gogorazten zidaten, bainera, nire mutil lagunaren inguruko mehatxuak... bainera entzuten nuen. Pertsona eta emakume bezala, anulatua sentiarazi nahi ninduten.

Karmen Irizar: Goizeko 10:30etan kale-rra nindoala, gosaltzera, 3 pertsona auto bate-tik irten eta herriko plazan paretaren kontra jarri ninduten eta "katxeatu" ondoren atxilotu ordena zutela esan eta autoan sartu ninduten buruan anorak bat jarritz. Jarraian, herritik kanporako mendi pista batera eraman ninduten eta bertan nire eskubideak irakurri zizkidaten. Niri sinarazi ondoren, eman zidaten lehenengo buruko kolpea eskuarekin. Ondoren autoan sartu eta burua makurraraziz, hanka artean sarturik anorak batekin buruan, Madrilerara abiatu ginen. Madrilerara bidean mehatxuak jasan nituen, beraien irribarreen artean. Madrilerara iritsi, eta komisaria bateko kalabozoetan pasa nituen ondorengo bost egunak.

Madrilen nengoela orduro pertsona batzuk etortzen ziren nire kalabozora, paretara kontrara begira jartzen ninduten eta galdeketa egiten zioten. Galdeketa egiten ari ziren bitartean, mehatxuak jasaten nituen, gehienbat etxearekin sartzen zirelarik. Gizonaren txamarra bat kalabozoan utzi zidaten. Galdeketa jasaten nituen bitartean buruan kolpeak ematen zizkidaten eskuekin, liburuarekin, paretaren aurka bultzatuz bortizki burua aurrean nuela eta ile-etatik tirakadak jasaten nituen baina ez zidaten uzten gora begiratzen, bost egunetan lurrera begira egon nintzen minutuak joan minutuak etorri".

Mikel Berasategi: "Atxilotu bezain laster eta gurasoen etxea eta lantokia arakatu eta gero hasi ziren nire bizitzako bizi-pen txarrenak. Lantokia arakatu eta gero, kotxe azkar baten sartu ninduten besoak atzealdean loturik (esposatuta) neuzkala, beste 4 txakurrekin. Atzealdean sartu ninduten burua makurturik ia buruarekin lurra jotzen nuelarik eta berehalaxe hasi zitzaizkidan denak txilioka eta barrabiletan elektrodoak ematen.

Bestea hilda laga zutela esaten zidaten tripak kanpoan utzi ziotelarik eta nirekin berdina egingo zutela berehalaxe hitz egiten hasten ez banintzen. Batek galdetzen zidan bitartean besteak jotzen jarraitzen zuten, batak buruan, besteak aldamenean eta hirugarrenak elektrodoak barrabiletan.

Bergararik irten bezain laster, geldituz bat egin zuten mendian, kotxetik aterata eta laurak hasi zitzaizkidan ostikoka lurrera bota eta batek poltsa bat buruan ipintzen zidan bitartean, beste batek belarra jateko esaten zidan eta galdeketa egiten zidan bitartean, pistola aterata eta ahoan sartu zidan, ihes egiteko eta jota bertan akabatuko ninduela esaten zidan. Hau gertatzen zen bitartean, beti zegoen beste bat nire barrabiletan elektrodoekin jolasean, ostikoka eta herriz ere kotxean sartu eta berdin jarraitu zuen bidaia guztiak Madrileraino".

Pili Agirrerri buruz: "Atxilotzen duten une beretik hasten dira mehatxuak, komisariara eramaten duten autoan bertan. Buruan objektu batekin kolpatzen dute, ile-etatik tirakadak ematen dizkiote, eta mehatxatzen dute kotxea geldituz; hitz egiten ez badu, tiro bat eman eta bide bazterrean botata lagako dutela. Honen ondorioz ospitalera eraman zuten. Komisarian egiten zizkioten galdeketa etengabe mehatxatzen zuten, alaba ere atxilotuta zegoela eta bortxatu egingo zutela.

Belarrietan oihukatzen zioten eta buruko ileak ateratzen zizkioten tiraka. Beste batean, paretari begira tente egotera derrigortzen zuten; erantzuten ez zuen bakoitzean paretaren kontra kolpekatzen zioten eta giltzurrunean objektu batekin jotzen zioten.

Ariketa fisikoak eginarazten zizkioten, lehertuta zegoenean lurrera erortzean, beraiek ileetatik jasotzen zuten. Ipurditik makil bat sartu eta lehertuko zutela mehatxatzen zuten. Bainera egingo ziotela mehatxatzen zuten, uraren zarata entzuten zuelarik. Lo egiten ez zioten utzi. Gelan besteen oihuak entzuten zituen. Inkomunikatuta egon zen egunetan noizbehinka pastillak hartzera derrigortzen zuten; epailearen aurretik pasatu zen arte".

AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEAK
Debagoiena

Astehenen goizean,
GOIENKARIA berezia

Hauteskundeek gainera Goienkaria berezia argitaratuko dugu astehenen goizean. Zortzi orrikoa izango da, dena koloretan, eta doan banatuko da. Egunkariak saltzen diren tokietan, okindegietan, eskoletan, lantegietan, dendetan, Elorregiko bidegurutzean... eskuratu ahal izango duzu.

Olatz eta Patxi



MIKEL ARRIOLA

2001eko HAUTESKUNDE AUTONOMIKOAK



Ibarretxe da baietza



EMAN BOTOA

EUZKO ABERTZALEAK

Antton Karrerak (Amezketan, 58 urte) ezkerreko alderdietan eman du gazetetatik bere jardun politikoa. Burgosko prozesuan epaitua, urte askoan LKIn ibilitakoa, zazpi urte daramatza Ezker Batuan, eta gaur egun, Gipuzkoako koordinatzailea da.

ENEKO AZKARATE

Hauteskunde kanpainan sartu da ETA, azken atentatua dela eta. Emaitzei begira ondorioz ekar dezake?

Bai, Euskal Herriaren interesen aurkako ondorioak hain zuzen ere. ETAk berriro ere agerian utzi du hauteskundearen emaitza aldatu nahi duela eta ez duela gogorik herri honen gehiengoaren nahia onartzeko. Ekin-tza horiekin PP ateratzen da garaile politikoki, nahiz eta haiek izan gehien sufritzen dutenak. ETA soberan dago eta egin dezakeen gauzarik onena desagertzea da.

Zer dago jokoan maiatzaren 13an?

Azken hogeitaka urteotako hainbat lorpen, euskararen gainekoak eta herriaren antolaketa ereduaren gainekoak bereziki, kolokan jartzea, baldin eta Mayor Orejak irabazten badu. Horrez gain, eskuindar gordin eta zentralistena gobernuan jartzea edo ez jartzea. Herri honek ez du hori behar, herri honek abertzale eta abertzale ez diren arteko gobernu behar du.

Batzuek diote hauteskunde historikoak izango direla eta euskaldunen askatasuna dagoela jokoan. Zer deritoxozu?


Argi dago oso garrantzitsuak direla eta ondorioak era batekoak edo besteak izango direla. Badakigu trantsizioa hemen nola egin zen... Hori gairatzeko bide bakarra herriari hitza ematea da. Horregatik diogu herri honen gehiengoak erabakitzen duena onartu behar dela eta, hortaz, benetako demokraziari beldurrik ez zaiola eduki behar. Baina herri honetan abertzaleak eta abertzale ez direnak daude eta guztiak eroso egongo diren erakunde politikoak behar ditugu. Gure ustez, biderik egokiena atxikimendu librean oinarritutako federakuntza da, hau da, herriak berak erabaki dezala nolako hartu-eman izan nahi duen beste herriekin, eta, hala, federakuntza osatzea. Hala eta guztiz ere, herritarren gehiengoak erabakitzen duena errespetatuko dugu.

Herria esaten duzunean zertaz ari zara?

Hauteskundeak Euskal Autonomia Erkidegoan egin behar dira, hortaz, une honetan esparru hau hartu behar dugu aintzat.

Lizarra-Garaziren aldeko apustua egin zuen EBk, eta horrek kritikak ekarri zizkion Espainian, baita alderdikideen artean ere...

Lizarra-Garazin izan ginen eta irten ere egin genuen. Bakea lortzeko ahalegina egin genuen eta akordioan idatzitakoarekin bat gatzot. Beste kontu bat da Lizarra-Garaziko Akordioa nola kudeatu zen. Edozein modutan ere, akordio horri esker urte eta erdian pozik eta itxaropentsu agertu ziren herritarrek. Hori ez dugu ahaztu behar. Gero, ETA berriro hasi zen indarkeria politikoa erabiltzen, eta ekintza armatuak gaitzesten ez baziren Lizarra-Garazik zentzurik ez zuela esan genuen. Horregatik irten ginen Lizarra-Garazitik. ETAk eta honen ekintzak gaitzesten ez dutenak dira Lizarra-Garaziren porrotaren erantzuleak. Hori gogoan izan beharko lukete maiatzaren 13an botoa ematera doazenek.



UBANE MADERA

Antton Karrera

EZKER BATUKO GIPUZKOAKO ZERRENDABURUA

“Jeltzaleek, EAKoek, sozialistek eta guk geuk osatutako gobernuak izango litzateke onena”

LIZARRA-GARAZI

“ETA eta honen ekintzak gaitzesten ez dutenak dira Lizarra-Garaziren porrotaren erantzuleak. Hori gogoan izan beharko lukete maiatzaren 13an botoa ematera doazenek”

EZKERREKO ALDERDIAK

“Ustez ezkerrekoak diren indar politikoek, eskubiak esaten duenari baietza ematen diote”

Zer proposatzen du Ezker Batuak bakea lortzeko?

Lehenengo, giza eskubideak oso-osorik errespetatu behar dira. Horrez gain, alderdi guztiek euren proposamenak jarri behar dituzte mahai gainean eta guztien arteko elkarrizketaren bidez lortuko da herri honen normalizazioa. Hala, mahairatzen diren proposamenen artean, herriak erabakiko du. Horixe da bide bakarra. Ajuria Enean ez zegoen HB eta Lizarra-Garazin ez zeuden PP eta PSE-EE. Konponbidea lortzeko guztiak batu

behar ditugu mahaiaren inguruan. Gurea moduko arazoak, azkenean, elkarrizketaren bitartez konpontzen dira. Horrek ez du esan gura ETArekin ekintzak saihesteko indar politikoez ez dutela lanik egin behar.

Gaur egun, indar politiko guztiak mahaiaren bueltan eser litezke?

Zoritxarrez, ez. Horretarako, bide politikoak urratu eta indar armatua baztertu egin behar da lehenbizi. Mahai gainean hildakoak jartzen badira, ezin da benetako elkarrizketarik bultzatu.

Zer ikasi duzue Lizarra-Garaziko Akordioa sinatu eta gero?

Askok esan ohi du Lizarra-Garazi abertzaleen arteko akordioa izan zela. Guk gure burua ez daukagu abertzaletzat eta ez gara independentziaren aldekoak. Lizarra-Garazi, bakea lortzeko tresna baino, eraikuntza nazionalerako tresna bilakatu zen, kudeaketa egokia ez zelako egin. Biak batera, erritmo berean, ez dira eramangarriak. Arazoa konpontzeko, aurrena, behar-beharrezkoa da bakea. Horren ondoren etorriko da eraikuntza nazionala. Biak nahastu egin ziren eta horrek izugarriko kaltea egin zion Lizarra-Garaziko Akordioari.

EB gertu egongo litzateke EAJ-EAekin gobernu osatzeko, baldin eta hiruren botoak konstituzionalistenak baino gehiago izango balira?

Mayor Orejari ez diogu botorik eman. Hori garbi dago. Gure ustez, abertzale diren eta ez diren arteko gobernu eratu beharko litzateke. Edukietan ados jartzen bagara, gertu gaude edozeinekin gobernatzeko. Bakea lortzeko bidez bat etorri beharko ginateke lehenbizi. Era berean, gizarte kontuetan ere ados jarri beharko ginateke nahitaez. Gutun soziala, esaterako, bere horretan onartzea eskatuko genieke gobernuakideei. Langileen eskubideak, ingurumena errespetatzeko proposamenak..., horiek guztiak betez gero, guk ez daukagu arazorik batekin zein bestearekin gobernuan egoteko.

Baina zeinekin gobernatuko luke gustura EBk?

EAJ-EAk, PSE-EEk eta guk osatutako gobernuak izango litzateke onena, baldin eta, esan dudan moduan, bakegintzan eta gizarte arazoetan ados jarriko bagina. Sozialistak, hala ere, gure proposamenetatik oso urrun daude eta horixe da arazo nagusia. Horregatik, benetako sozialistek esan nahi diet herri honi ezkerreko aterabide bat topatu nahi badiote benetan zaila egin behar zaiela PSE-EEri botoa ematea. Ezkerreko ideiak hobeto ordezkatzen ditu EBk.

Sozialistek esan dute EBk bat egingo duela EAJ eta EAekin, hauteskunde legea aldatzearen ordainetan...

Hori demagogia hutsa da, gezur biribila, jendea engainatu nahi izatea besterik ez. Espainiako Estatuko autonomia erkidego guztietan botoen %3 lortuz gero, ordezkaritza lortzen dute alderdiek. Euskal Autonomia Erkidegoa horren gainetik zegoen. Hortaz, zenbat eta proportzionalagoa izan, orduan eta demokratikoa izango da legea. Oraingoa, esaterako, lehengo baino demokratikoagoa da. Hortaz, PSE-EE lege berriaren aurka baldin badago, demokraziaren aurka dago.

Ustez, EHk, PSE-EEk eta EBk ordezkatzen dituzte Euskal Herriaren ezkerreko joerak. PSE-EEekin edo EHekin lanikidetzarik ikusten duzu?

Lehenengo egunean, Bernardo Atxagak esan zidan herri honetako gehiengoak bere burua ezkertiarizat duela, baina hauteskundearen eskubiko indarrak irabazten dutela. Eta, benetan beharrezkoa zela ezkerreko joerako indar politikoek gehiengo izatea. Hori beharrezkoa da gure ustez. Baina ezin dugu ahaztu PSE-EEk urtetan jardun duela EAJekin gobernatzen eta ez duela ezkerreko politikarik egin. Botereari eustea izan da bere helburu bakarra. Eta gaur egun, sozialistek darabilten jokaera politikoa PPren fotokopia da eta horrekin originala, hau da, PP, indartzen ari dira. Bestalde, HBk ezkerrekoa dela esaten du, baina orain dela gutxi Gutun soziala eztabaidatu zen Legebiltzarrean eta EH ez zen joan ere egin. Une honetan, independentziarekin ari dira buru-belarri, eta ez dute ezkerreko politikarik egin. Horixe da herri honen drametako bat, alegia, ustez ezkerrekoak diren indar politikoek eskubiak esaten duenari baietza esaten diotela.

Podiuma

Ander Corcuera | AUTO GIDARIA |


Ander Corcuera pilotu arrasatearrrak (21 urte) Renault Formula izeneko txapelketan debuta egingo du aurki. Ander Euskadiko kart txapelduna izan da azken hiru urtean, 100 cm³ eta 125 cm³-ko kategorietan, eta orain beste maila batera jauzia egiteko ordua heldu zaio. Frantzia nagusiki jokatzen den Renault Formula txapelketan eserleku bakarreko Tatuus FR-2000 ibilgailua gidatuko du, 180 zaldikoa.

Zelan sortu da Renault Formulan parte hartzeko aukera?

Azken hiru urtean, Euskadiko kart txapelduna izan naiz eta hurrengo pausoa beste maila altuago batera jauzia egitea zen. Espainiako Estatuan jadanik ez da jokatzen Formula Toyota, eta ez zegoen gure mailako beste txapelketarik. Gauzak horrela, Frantziako zirkuituetan jokatzen den Renault Formula txapelketan parte hartzeko aukera aztertu genuen. Donostiako talde batek Frantzia lehiatzeko aukera eskaini zigun eta espero dugu laster debuta egin ahal izatea. Txapelketa jokatzen hasi da dogeneko, eta hilabete barru edo, entrenatzen hasteko itxaropena daukat. Berehala nahi dut lehiaza, pixka bat atzeratuta gabiltzalako.

Zenbateko aurrekontua eskatzen du horrelako txapelketa batean parte hartzeak? Zeintzuk izango dira babesleak?

Renault Formula txapelketan parte hartzeak 10



Ander Corcuera Renault Formulan debuta egiteko irrikitan dago.

“Donostiako talde batek Frantzia lehiatzeko aukera eskaini zigun. Berehala hasi gura dut Renault Formula txapelketan”

“Aurten, esperientzia hartu eta ahalik eta aurren ibili nahiko nuke. Ea datorren urte-tik aurrera emaitzak lortzen hasten garen”

milioitik gorako aurrekontua eskatzen du. Txapelketa exigentea da oso, eta lehen esan dudan moduan, sortu berri den Donostiako talde bat arduratuko da alderdi teknikoaz eta eserleku bakarreko autoaren mantentze lanez. Babesleei dagokienez, oraingoz, Fagor eta Meca Renault gertu azaldu dira proiektua diruz laguntzeko.

Zer asmo duzu txapelketari begira?

Oraindik ere goiz da galdira horri erantzuteko, baina lehenbiziko urtean esperientzia hartu eta ahalik eta aurren sailkatzea nahiko nuke. Hala ere, gauzak ez dira errazak izango, lehiakortasun handia dago eta. Ea autoari eskua hartzen diodan poliki-poliki, eta hortik aurrera ikusi

egin behar. Kartingetik Renault Formularako jauzia ez da makala izango, eta lehenbiziko urtea, batez ere, esperientzia hartzeko ondo etorriko zait. Bigarren ordu aurrera, berriz, ea emaitzak lortzen hasten garen...

Pilotatzeko orduan guztiz diferentea izango da karta edo eserleku bakarreko autoa gidatzea...

Eskala diferenteak dira. Orain, zirkuituak eta autoa bera handiagoak dira; autoak askoz ere lasterragoak dira. Renault Formula txapelketan, batez beste, autoek 230 kilometro orduko abiadura hartzen dute eta kart lasterketetan, berriz, 160 kilometro orduko abiadura ibiltzen gara.

Arriskurik sumatzen duzu?

Ez dauka zertan kirol arriskutsua izan beharrik. Mundu honetan arriskua edonon egon daiteke, baina zirkuituetan segurtasun handia dago eta alde horretatik, behintzat, ez daukat inolako beldurrik.

Non entrenatzen zara?

Orain arte, Olaberriako kart zirkuituan ibili naiz gehienbat, astebukaeretan. Renault Formula txapelketa batez ere Frantziako zirkuitu ezagunetan jokatzen dela kontuan izanik, han entrenatzen saiatuko gara. Nogaroko zirkuitua, esaterako, nahiko gertu dago.

Zein pilotu duzu gustuko?

Asko daude. Rallyetan ari diren artean, Carlos Sainz gustatzen zait eta 1 Formula kategorian Fernando Alonso asturiarra oso ona dela uste dut.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

Enrique Alonso
Txirrindularia

Enrique Alonso Lotus taldearen mailotarekin.

Tourrean 31. sailkatu zen 1992an


Bost urte egin zituen profesionaletan

Espainiako Itzulia hiru aldiz egin zuen

Txirrindulari karneta izateko Frantziako Tourra egin behar dela esan ohi da. Alonsok 1992an egin zuen Tourra, Festina taldearekin, eta proba bikaina burutu zuen, 31. sailkatu zen eta: “Kirola gogorra egiten da norbera ondo ez dabilenean. Urte hartan ondo nenbilen eta Tourra ez zitzaidan hain gogorra egin”. Hala ere, Tourrean egindako lana ez zuen nahiko izan txirrindularitzan jarraitu ahal izateko: “Lotus-Festina taldea Andorrako Federazioan inskribatu zen eta urte berean RMO taldea desegin zen. Lotusek RMO taldeko txirrindulari gehienak hartu zituen eta Espainiako Estatuko ziklista asko kanpoan geratu ginen, taldea jadanik ez zegoelako behartuta ziklista eskaintza irren arren, uztea erabaki nuen”. Alonsok bost urte eman zituen profesionaletan, 88tik 92ra. Besteak beste, Sean Kelly izan zuen taldekide eta Miguel Moreno eta Txomin Perurena izan ziren bere zuzendariak. Espainiako Itzulia hiru aldiz egin zuen. 1989ko ekitaldian, erlojukontrako taldekako proba irabazi zuen Zahor taldearekin, Benicassimen. Hala ere, batez ere eskalatzailea zela diosku. Izan ere, Euskadiko Itzulian mendibat sailkapena irabazi zuen 88an. Europako hainbat klasiketan ere parte hartu zuen eta Donostiakoan hamargarren izan zen 92an. Aurretiki, afizionatua, Bizkaiko Itzulia eta Balaustiak Memorialetan irabazi zituen.

Ziklista garaietatik oso oroitzapen onak dituela dio. Ziklista bat aukeratzekotan, Indurain aipatzen du, “ziklista eta pertsona gisa duen mailagatik. Oso jatorra da Miguelon”. Enpresaritzatik ikasketak egin zituen eta gaur egun Arrasate aholkularitzan dihardu lanean. / E. M.

“Kirola gogorra egiten da norbera ondo ez dabilenean. 92an ondo nenbilen eta Tourra ez zitzaidan hain gogorra egin”



Enrique Alonso • Arrasate • 1965



Nire Pronostikoa

XABIER INFANTE / Aloña Mendi igeriketa taldeko entrenatzailea

Gasteiztarra izanik, Alaves taldeko jarraitzailea naiz eta, UEFAko finalaren atarian, Alavesek Coruña atarian duela duen duelako azkenaldian. Realak partidu zaila izango du Villarrealen baina

ea puntutxo bat lortzeko gauza diren... Pilotan, Barriolak Belokiri irabaz diezaiok, orain arte txapelketa borobila egiten eta delako. Ez dakit eskuak zela izango dituen baina serio-serio jokatzen dihardu. Beste finalerdian Eugi da faborito, eskuzbanaka gaur egun maisua delako.

Oraingo astebukaerako partiduak

A/ Deportivo	1	Alaves	2
B/ Villarreal	1	Reala	1
C/ Barriola	22	Beloki	19
D/ Eugi	22	Rai	16



FORUM

KIROLA EGITEN DUGU



LAN ESKAINTZA

Kirola grinaz bizi duzun hori, orain proiektu handi batean sar zaitezke.

FORUM-ek aurki Arrasaten irekiko duen dendarako, hautatu behar ditu:

■ SAIL ARDURADUNA. REF. RSS.

Bere arloan, produktuak definitu eta ipintzeaz, prezioen jarraipena egiteaz eta hornitzaileekiko harremanez arduratuko da.

Gazte dinamikoak nahi ditugu.
Ohiko kirolariak eta kirolean ondo jantziak.
Erdi mailako tituluaren jabe direnak.
Microsoft-en ofimatika inguruneke erabiltze mailako ezagutzak dituztenak.

Ezinbestekoa euskaraz jakitea.

■ DENDAKO SALTZAILEAK. REF. DTE.

Eskaintza hau kirol artikuluez asko dakiten gazte kirolariei zuzenduta dago.
Egun osoko edo egun erdiko lanaldia (arratsaldeaz eta astebukaeran)
egiteko prest daudenak.

Ezinbestekoa euskaraz jakitea.

Interesatuak utzi curriculum vitae-a FORUMen zentratean (Donostia/Usurbil).
Edo bidali zuen curriculum vitae-ak 186 posta-kutxara, honako datu hauekin:

- Karnet tamainako argazki egin berria.
- NANren fotokopia.
- Egindako ikasketen eta lanbideari buruzko datuak.
- Harremanetarako telefonoa.
- Egindako kirolak eta horietan lortutako espezializazio maila.
- Gutun-azalean postuaren erreferentzia adierazi.


OHARRA: Eskerak jasotzeko azken eguna: 2001.eko maiatzaren 23a.
Hautaketa probarako, aldeztu aurretik aukeratutako pertsonen telefonoz deituko diegu.

Maiatzak 12-13

FERITUR

DEBAGOIENENKO II. TURISMO AZOKA

Oporrak
aukeratzera
gonbidatzen
zaituztegu



B E R G A R A
(BERGARAKO SEMINARIOAN)

ORDUTEGIA: 10:00-14:00 ● 16:00-20:00

Antolatzailea

DEBAGOIENENKO
MANKOMUNITATEA



Laguntzailea

CCL 37-03
HALCON
BIDAIAK



Goienka 2a

Egubakoitza / 2001eko maiatzaren 11n

Kultura
eta
Aisialdia



Maiatzaren
4tik 11ra

Komikilaria

Ilustratzaileak dira batzuk, marrazkilaria izena dute gustuko besteek, baina hemen batu ditugunak inoiz edo behin komikiak egiten jardun duten lagunak ditugu.

Ipurbeltz, Jabato, Capitán Trueno, Mortadelo eta Filemon, Superlopez, Asterix eta Obelix... Napartheid, Tmeo, fanzineak... Adinaren arabera bat edo beste irakurriko da seguruenik, baina betiere, modu batean ez bada bestean, *gag* kritikoak, umore fina, grazia, originaltasuna... izaten dira guztien osagai. Nork ez du egunen baten irritxoren bat egin horrelako komiki liburuekin? Eta horrela ez bada, nork ez du irakurri egunkari edo aldizkariaren bateko komiki tiraren bat eta barre egin? Denok jan dugu zerbait komikietatik, eta irakurtzeko beste modu bat moduan ikusten da, gaiak beste modu batean kritikatzeko tresna zein gaiak mahaigaineratzeakoa, zein aldarrikatzekoakoa, zein... komunikatzeko beste era bat. /15

IBAN ARANTZABAL



NAZIO ASKE BAT JAIOTZERA DOA

euskal herria

BOZKATU



Komikia

Komikia: eguneroko gaiak mahaigaineratzeko beste era bat

GURE BAILARAN DAUDEN MARRAZKILARIEN ARTEAN, KOMIKILARIAK ERE BADIRA MORDOXKA BAT


Gure bailaran komikiak eskuratzeko gero eta zailagoa da. Fan-zineak eta bestelako eskupaperak gehiago ziren orain dela urte batzuk. Gaur, inguruko hiriburuetara egin behar izaten da salto, izan ere, taberna alternatiboak edo eskupaperak horrelako lekuetan

aurkitzen ditugu. Elkarrizketatuek esan diguten moduan, zaila da oso, zaleendako ere, egiten diren komikiak eskuratzeko, eta zer esanik ez, bada, gainerakoondako, halako kasuetan kasualitateak harribitxiak aurkitzera eramaten gaituenondako alegia.

Gaztetxeetako orriak, musika taldeen berri ematen duten fotokopiak, aldizkari alternatiboak... askoz gutxiago kaleratzen dira, eta neurri handi batean, horrek ere eragingo du komikiek kalean duten presentzia urrian. Hala ere, komikizaleak badaude oraindik eta gure bailaran


ere ez dira gutxi. Elkarrizketatuak lau izan diren arren, atzean beste hainbat utzi ditugu: Aitor Bolinaga, Pernan Goñi, Igor Arizmendiarieta, Iban Astondoa, Haritz Iñurritegi... ezagun egin dira herri aldizkariaren batean edo *Napartheid* aldizkarian euren izenpea ikusi dugulako.

Komikilari gehienak marrazkilari moduan dute beren burua, eta hori esan ostean zailena gidoiak egitea dela diote. Gurekin egon diren hiruk etsenplu bera jarri dute, *Asterix eta Obelixena*, izan ere, gidoilaria hil ostean marrazki onak ditu, baina gidoiak...




Leire Zubikarai
(Arrasate)

Leirek 1990etik dihardu komikigintzan. Bere burua marrazkilaritzat du, baina gure artean, *Arrasate Press* aldizkarian egiten zituen tiretatik egin da ezagun. Kolaboratzeko lanak diren guztietan aritu izan da, baina noizbait libururen bat ilustratzea edo gustatuko litzaioke. Aspalditik dihardu argitaratzen, baina are lehenagotik marrazten: "Umetatik marraztu izan dut. Beti izan dut zaletasun hori, eta gero, nire lanbidea ere hor aldetik bideratu dut, Arte Ederrak egin nituen-eta. Komikiak ez ditu larregi jarraitzen, baina *Napartheid* aldizkaria oso gustuko zuen: "*Napartheid* izan da gehien gustatu zaidan aldizkaria, Amaia Martiartuk sartu ninduen mundu horretan. Aldizkari horrez gain, *Asterix eta Obelix* gustatu izan zait betidanik."




Hibaik Garai
(Oñati)

Hibaik bitzta osoa darama marrazkiak egiten; hala ere, duela laupabost urte argitaratu ditu lehenengo komikiak. Grafitilari amorratua eta koloreak erabiltzen dituen arren, zuri-beltza du gustuko. Crumb edo Frank Miller aipatu dizkigu gustukoenen artean, eta baita Peter Bagge ere. Hibaik dioenez, "ondo pasatzeko margotzen dut eta, bide batez, irakurleek ere ondo pasatzea lortuz gero, hainbat eta hobeto". AEDk antolatutako komiki lehiaketan irabazle izan da; txapelketa kontu hau ospea eta diru pixka bat lortzeko baino ez direla esan digu. Euskal Herrian oso maila altua dagoela dio: "Beharbada, itzulpenak egiteko beharra dago, badago zer landua... Euskal Herrian badago maila eta hori erraz igartzen da."



Josu Okina
(Bergara)

Berrigara hasi zenean lau katu ginen eta bat behar zen komikiak egiteko, militantzia puntu bat izan zen hasteko sasoian. Ilustrazioak ere egin izan ditu Josuk, "normalean, horiek ere *liadaren* baten ondorio. Lagun handia dut Juan Martin Elexpuru eta hark bultzatu ninduen bere liburu baterako ilustrazioak egitera". Josuk dioenez, "marrazki onak dituenak ez du izaten gidoi onik eta gidoia lantzen duenak nahiko trakets egiten ditu marrazkiak. Hori da orain marrazten diharduten komikilarien zama". Antzinako komikilariak ditu gogoko, "Amerikarrak dira marrazkilari onenak: esaterako, Foster, *Printze ausarta* egin zuena. Marrazketa eta margoak beti gustatu izan zaizkit eta nire zaletasuna hortik dator".



Mikel Arroiabe
(Aretxabaleta)

Mikel komikiekin eta *Napartheidekin* batera hasi zen orain dela zazpi urte, eta komikizalea den biologo moduan aurkeztu digu bere burua. *Aretxagazeta*, *Goienkaria*... aldizkari batzuetan jarduna da, baina ez horretan bakarrik: "Margolanak eta beti egin izan ditut, txiki-txikitik. Gidoia egiten dut lehenik, eta onartu behar dut buruhauste gehien horrexek ematen didala. Gero etortzen dira pertsonaiak eta ingurua". Tira egilea da Mikel, eta *Napartheideko* komikilariak ditu gustukoenen artean, batez ere lehengo belaunaldikoak. Oraingoak ere finak izan arren, *Napartheid* ez da lehen izan zena. Asterix oso gustuko du. Gaurkotasanaren gainean iritzia emateko tresna moduan ikusten du Mikelek komikia.



HIBAIK GARAI



JOSU OKINA



MIKEL ARROIABE



Maiatza: 11-18

Edu Mendibil / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: erredakzioa@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

Antzerkia

ARETXABALETA

> **Un irlandes en Euskadi** baka-
rrizketa zapatuan, maiatzak 12,
Gaztetxean, 22:30ean.

ARRASATE

> **Minutu bakarra** antzerki saioa,
Ander Lipusen eskutik, egubakoi-
tzean, hilak 11, Jaizale tabernan,
23:00etan.

ESKORIATZA

> **Yo los maté** antzezlan
Belladona taldearekin datorren
egubakoitzean, hilak 18, Jose
Arana ikastolan, 22:30ean.

ELORRIO

> **Eki** umeentzako antzezlan
La compañía de los sueños taldearen
eskutik domekan, hilak 13, Arriola
aretoan, 17:00etan.

Musika

ARRASATE

> **Perkusio kontzertua** eguenean,
maiatzak 17, Arrasate Musikaleko
areto nagusian, 20:00etan.

BERGARA

> **Dimmu Borgir, Susperia** eta
Destruction taldeak egubakoitze-
an, hilak 11, Jamen, 21:30ean.
> **Tresor night** zapatuan, maiatza-
ren 12an, Jam aretoan: James
Ruskin, Pacou, Sender Berlin
(Stassy & Luke) eta beste hainbat.
> **Gaizkiñe, R eta Nor Jainkoa**
bezala taldeak zapatuan, maia-
tzak 12, Gaztetxean, 23:00etan.
> **Rosendo** eguenean, hilak 17,
Jam aretoan, 22:00etan.

OÑATI

> **Florilegium** taldea domekan,
hilak 13, Santa Ana antzokian,
19:30ean.

ELORRIO

> **Rigmor Gustafsson** jazz kon-
zertua egubakoitzean, hilak 11,
Ateneoan, 23:00etan.
> **Txema Murugarren** datorren,
hilaren 18, Ateneoan, 23:00etan.

Erakusketak

ARRASATE

> **Jose Ramon Guerraren** margo-

ak Toki Eder kafetegian maiatzean.

BERGARA

> **Aitor Larrañagaren** pintura
lanak domekara arte Kultura
Etxean.
> **Nacho De Vicente** aramaioarra-
ren margo erakusketa Nahikari
tabernan.
> **Jon Balentziaga** margolari ber-
gararraren erakusketa Donostiako
Txapasta kafetegian (Igentea kale-
an) domekara arte.

OÑATI

> **Maama drid** argazki erakusketa
Gaztelekuan maiatzaren 26ra arte.

Lehiaketak

ARRASATE

> **Kartel lehiaketa**, San Juan jai-
tara begira. Lehiaketa honetan
Arrasaten bizi edo erroldatutako
edozein pertsonak har dezake
parte. Kartelen neurriak 50x70
zentimetrokoak izango dira.
Formatoak, nahitaez bertikala izan
beharko du. Euskarri informatiko-
an (disketean) ere aurkeztu ahal
izango da kartela, DIN-A3 tamaina-
ko paperean inprimatuta. Teknika
librea izango da. Kartelek derrigo-
rrez testu hau izan beharko dute:
2001 San Juan Jaiak Arrasate.
Irabazleak 125.000 pezetako saria
jasoko du. Kartelak aurkezteko
epea maiatzaren 25ean bukatuko
da. Argibide gehiago udaleko
Kultura sailean, 943 79 09 00
telefono zenbakian.

> **Argazki lehiaketa** deitu du
Arrasateko Udalak. Lanak aurkez-
teko epea urriaren 11ra arte izan-
go da zabalik. Argibideak udaletxe-
an, 943 79 09 00 telefono zenba-
kian.
> **Komiki ez sexisten IV. lehiake-
ta**, Arrasateko Udalak deituta.
Lanak aurkezteko epea uztailaren
28an bukatuko da. Argibide gehi-
ago 943 79 09 00 telefono zenba-
kian.

BERGARA

> **Bergara Hiria argazki lehiaketa**
Euskal Herriko argazki zaletuei
zuzenduta. Zuribeltzeko edo kolo-
retako argazkiak aurkez daitezke
(mota bakoitzeko lau gehienez).
Argazkiak 30x40 zentimetroko kar-
tulinan aurkeztuko dira. Lanak
entregatzeko epea maiatzaren
22an bukatuko da. Sari banaketa
ekainaren 8an egingo da.

Irabazleak 25.000 pezeta eta tro-
feo eskuratuko ditu, eta beste
hainbat sari ere egongo dira.
Argibideak: 943 76 30 90.

DONOSTIA

> **Euskal Herriko Bertsolari**
Txapelketako kartel lehiaketa.
Kartelaren esaldia: *Hitza informa-
zioaren gizartean.* Edozein estilo
eta teknika erabiliz eginiko lan guz-
tiak onartuko dira. Kartelaren for-
matua 50x70 cm-koa izango da.
Irabazleak 250.000 pezetako saria
eskuratuko du. Lanak aurkezteko
epea maiatzaren 25ean bukatuko
da. Argibideak 943 21 77 98 tele-
fono zenbakian.

Ikastaroak

ARRASATE

> **Gorputz lan bioenergetiko tal-
dea.** Eguazteneko, 18:30ean.
Arrasate Yoga Elkarteak antolatu-
ta. Argibideak 616 96 57 95
telefono zenbakian.
> **Geriatría erizaintzako lagun-
tzaille ikastaroa** maiatzaren 16tik
uztailaren 18ra. Langabezia
dauden pertsonen eta INEMen
izena emana dutenei zuzenduta.
200 orduko ikastaroa izango da
eta astean lau egunean izango
dira eskolak. Izena ematea eta
argibideak Debagoieneko
INEMeko bulegoan (943 77 16
99) edo Instituto Comunitario de

la Tercera Edad (ICTE) delakoan
(943 77 17 15 telefonoa).

ARETXABALETA

> **Luzaketa laguntze ikastaroa**
maiatzaren 29tik ekainaren 28ra
arte, martitzen eta eguenean,
20:30ean. Argibideak eta izena
ematea: 616 96 57 95.
> **Garapen pertsonala taldea.**
Hilean bi bilduko dira larunbata-
tan, 10:00etatik 14:00etara.
Informazioa eta argibideak 616
96 57 95 telefono zenbakian.

BERGARA

> **Informatika ikastaroa:**
Windows eta Microsoft Word
hasiera. Bergarako Udaleko
Enplegu sailak antolatuta.
Lehenbiziko ikastaroa maiatzaren
28tik uztailaren 4ra bitartean
izango da, astelehenetik eguba-
koitzera, 9:00etatik 11:00etara.
Izena ematea maiatzaren 17ra
arte zabalik. Argibideak 943 77
91 65 telefonoan.

Deiak

ANTZUOLA

> **Jai Batzordearen bilera** aste-
lehenean, maiatzak 14, udaletxe-
an, 18:00etan. Herriar guztiak
gonbidatuta daude.

ARETXABALETA

> **Chiapasi buruzko diorama**

egubakoitzean, hilak 11,
Gaztetxean, 22:30ean.

ARRASATE

> **Txatxilipurdi elkarte.** Urtero
bezala Eguzki-Laru eguna ospatuko
du elkarteak, eta hori dela eta,
egun horretan parte hartu nahi
dutenentzat izena ematea maiatza-
ren 15era arte zabalik izango da.
Argibideak eta izena ematea 943
77 17 37 telefonoan (Jon edo
Rebeka).

> Lourdesera erromesaldia.

Arrasateko Osasun Pastoralak
maiatzaren 26an autobusak anto-
latu ditu, Lourdesera joan-errotia
egiteko, maiatzaren 24tik 28ra
Gipuzkoako Elizbarrutiaren astea
izango baita Lourdesen. Irteera
goizeko 6etan izango da Garibai
autobus geltokitik, eta Lourdesetik
itzulera gaueko 22:30ean, zuzien
prozesioaren ostean. Izena emate-
a Halcon bidai agentzian egin
beharko duzue. Autobus txartelak
2.600 pezetan salduko dituzte.
> **Mendi irteera** Aizkorritik
Aloñara, maiatzaren 19an.
Txartelak Besaideko lokalean
maiatzaren 15era arte.

BERGARA

> **Ikus-entzunezkoa: Munduari**
itzulia 17 urtetan belaontzian eta
familian. Egilea: Santiago
Gonzalez. Eguenean, maiatzak 17,
Udal Euskaltegian, 19:30ean.
> **Hitzaldia: Arte religioso en**
Bergara en los siglos XVI, XVII y



KIROLA

ARRASATE-OÑATI KORRIKA PROBA

Arrasate-Oñati lasterketaren XIX. ekitaldia jokatu da zapatuan, hilaren 12an. Partaideek 11 kilometro eta 300 metroko ibilbidea bete beharko dute. Lasterketa 18:30ean hasiko da eta izena ematea irteeran bertan egin daiteke, Arrasateko Garibai pasealekuan, 18:15 arte, edo Oñatiko Foru Enparantzan, 17:00ak arte. Oñati-
tik Arrasatera autobusa egongo da, 17:00etan. Bestalde, gaztetxoei zuzendutako Zubillaga-Oñati lasterketa
jokatuko da aurretik, 17:30ean.




LASAGABASTER
ZURE KONFIANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE
943 79 27 27 • 943 79 13 55

Hauteskundeak 2001

**Bailarako eta herriz herriko
datu eta informazio guztia
zure eskura.**

*Emaitza guztiak:
Erkidegokoak, bailarakoak, herrietakoak...
Eguneko gora beherak.
Egoeraren analisisa.
Iritziak.*



Goitb
Goiena Telebista

**ZUZENEKO SAIO BEREZIA, DOMEKAN
20:00etan hasita.**

Aurkezlea: Maria Agirre / Iritzi emaleak: Mikel Irizar eta Mikel Lezamiz

Goienkaria

**ZORTZI ORRIALDEKO BEREZIA, ASTELEHENEAN
Goizean goiz.**

Lantoki, eskola, denda, kiosko eta abarretan doan eskuragarri

Goiena
Kulturako Departamentua

Moda | Johana Madinabeitia oñatiarraren diseinuak Aquariumean

Johanaren aukera

Donostiako Aquariumean bere lehen desfilea aurkezteko aukera izan du Johana Madinabeitia diseinatzaile oñatiarrak. Eusko Moda Elkargoaren babespean erakutsi zituen berak jositako arropak maiatzaren 2an. Donostiara joan behar izan zuen Johanak, badakizue hiriburuan egiten diren ekintzek oihartzun handiagoa izaten baitute.

Hasiera batean, desfilea diseinatzaileak Oñatin duen tailerrean egitea pentsatu zuten, baina horrela eginez gero bailarara komunikabide gutxi hurbilduko zirela pentsatu (badakizue batzuentzat Gipuzkoa Tolosan bukatzen da), itsaso azpiaren aldeko apustua egin zuten. Erabaki zuzena duda barik Aquariuma aukeratzeko. Komunikabideei dagoeneko, oihartzuna ezinhobeia izan da, eta ondorioz, ateak ireki zaizkio Johanari. Hala ere, bere tailerrean desfilea egitea ere polita izango

litzateke. Desfilearen osagarri litzateke 24 urteko diseinatzaile gazte bat zelako baliabideekin lan egiten hasten den ezagutzea, eta lanerako erabiltzen dituen tresnak ikustea.

Diseinatzailea dela dio Johanak, eta hasteko ondo legoke diseinatzaile eta jostun izatearen arteko desberdintasuna argitzea. Orratza esku artean maiz hartu behar izaten badu ere, berea diseinu berriak sortzea omen da. Hau da, arropak asmatzea. Tailerrean Johana, da diseinatzailea eta jostuna berriz, bere ama. Hala ere, orain lanez gainezka dabilena eta, Legazpiko tailer batera bidaltzen ditu sormenarekin lotuta ez dauden lanak.

Milan eta Paris dira Johanaren inspirazio iturriak. Ez omen du diseinatzaile bakar bat gustoko. Valentino zein Galiano gustatzen zaizkio, eta hori nabari zen Donostian aurkeztu zituen arropetan. Desfilearen

hasieran aurkeztutako arropak gutxiago, baina hortik aurrera aurkeztutakoak nahiko "glamurosoak eta femeninoak" berak aitortu bezala. Soineko luzeak, kolore bizikoak, eskoite handikoak.... Une jakinetarako balio duten horietakoak. Baina edozer gauzaren gainetik, moztea gustatzen zaio Johanari, eta hori nabarmen utzi zuen. Mozketa zailak egiteko gai dela erakutsi zuen oñatiarrak.

Oñati berriak aukeratzeko orduan ere ez da kokiltzen. Denim ehunean jositako soineko, fraka eta topak, ehun elastikoak egindako soinekoak, busti itxurako gona eta soineko distiratsuak eta batez ere jauskortasun handiko jantziak. Negura begira, berriz, polilarruzko eta puntuzko jantziak aurkeztu zituen. Koloretan, esandakoa, udari begira oso biziak eta negurako, berriz, granate eta teila koloreko jantziak.

Desfileak ekarri dizkion buruko-



Johana Madinabeitia, erdian, bere modeloekin.

MARIA AGIRRE

minak pasata, orain burubelari heldu nahi dio berriro ere tailerreko lanari. Baina marketing lanak ere albo batera utzi gabe. Diseinatzaile izateaz gain, saldu ere egin behar baititu arropak. Dagoeneko Arrasate, Oñati eta Santanderreko denda batean saltzen ditu arropak, eta desfilearen ostean dei batzuk ere jaso ditu, baina orain katalogo bat egin nahi du dendetara aurkeztu ahal izateko. Etorrizunari begira, berriz, bere kon-

tura lan egitea amesten du baina Oñatin jarraitu ahal izatea zailago ikusten du. Gaur egun Bilbo aldean gero eta diseinatzaile gehiago dago eta ehungintzaren sektoreak loraldia bizi du bertan, baina horiek ere aukera dutenean Madrilera edo Bartzelonara alde egiten dute. Johanak ere badaiki Oñatin aukerak murriztagoak direla zentzu guztietan.

MARIA AGIRRE

ESKER ONA

Cipriano Muruamendiaraz Txintxurreta

Gasteizen hil zen 2001eko maiatzaren 3an, 80 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Benita Lete Arriola

Felix Iturberen alarguna

Bergaran hil zen 2001eko maiatzaren 2an, 78 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Maria Concepcion Murillo Triguero

Antzuolan hil zen 2001eko maiatzaren 4an, 77 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Emeteria Uriarte Azpiazu

Valentin Egurenen alarguna

Bergaran hil zen 2001eko maiatzaren 1ean, 94 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Mikaela Ezenarro Larrañaga

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzak 13, eguerdiko 11:30ean, Bergarako Santa Marinaran.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose Unzetabarrenetxea Askasibar



Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzak 13, 12:00etan, Elgetako eliz nagusian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

M^a Luisa Azkarate Arrese

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzak 13, eguerdiko 12:00etan, Aretxabaletako Mitarte kalean.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Pedro Zumelaga Ajuria

2000ko maiatzaren 26an hil zen Bergaran
Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzak 13, eguerdiko 11:30ean, Bergarako Santa Marinaran.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Domingo Etxeberria Zangitu

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzak 13, eguerdiko 11:30ean, Osintxuko Santu Martirien elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Eguraldia



ZAPATUA, 12

Goizeko lehen orduetan behelainoa egongo da, baina goizean laino gutxi egongo da. Arratsaldean, hala ere, zeharo estaliko dira zeruak, eta euria egingo du. Temperatura ez da aldatuko.

Nafarroako Erribera: Eguzkitsua. Errioxa: Eguzkia nagusi. Pirinioak: Eguzkitsua.

Urkuluko urtegia

Gora eta zora doa Urkuluko ur malla. Joan zen astean %97,66 zen, eta oraingo astean, berriz, %98,17. Hurrengo astean ere euria egingo ei du, beraz, badrudi ur mallak igotzen jarraituko duela.

%98,1

Telefonoak

Table with SOS DEIAK and OSASUNA / LARRIALDIAK sections listing various phone numbers.

Table listing phone numbers for various locations like Bergara, Elgeta, Eskoriatza, etc.

Table listing phone numbers for GARRAIOAK (transport services).

Table listing phone numbers for RENFE services.

Table listing phone numbers for DEBAGOIENA services.

Table listing phone numbers for GARRAIOAK (continued).

Table listing phone numbers for Kultura Etxeak and Udalak.

Table listing phone numbers for Udalak (continued).

Zozketak

Table for lottery results (Zozketak) including BONOLOTOA, LOTERIA PRIMITIBOA, and ONCE.

Autobusak

PESA 902 10 12 10

A: Astegunak / Z: Larunbatak / J: Jaiegunak eta Igandeak

Table for DONOSTIA-GASTEIZ bus routes.

Table for GASTEIZ-ARRASATE-BERGARA-EIBAR-DONOSTIA bus routes.

Table for DONOSTIA-BILBO bus routes.

Table for BILBO-DONOSTIA bus routes.

Table for ONATI-ARRASATE-BILBO bus routes.

Table for BERGARA-ONATI-ARRASATE-ARETXABALET-AESKORIATZA bus routes.

Table for ESKORIATZA-ARETXABALET-AARRASATE-ONATI-BERGARA-EIBAR bus routes.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TEMPERATURA

10,3°C

ILARGIAREN ALDIAK: MAIATZA



EGUZKIA: MAIATZAREN 13a



Mezak

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

Astegunetan 08:30, 12:00. Zapatuetan 08:30, 12:00, 19:30. Domeka eta jaiegunetan 09:00, 10:00, 12:00 (nagusia), 13:15 (gaztelaniaz, Kriptan), 17:30.

Erakunde hauen laguntzaz



Arrasateko Udala, Aramaioko Udala, Aretxabaletako Udala

Eskoriatzako Udala, Leintz Gatzagako Udala, Antzuolako Udala

Table for BERGARA-ANTZUOLA-IRUÑEA and IRUÑEA-ANTZUOLA-BERGARA-EIBAR bus routes.



Umore giroan

Igor Oruesagasti

MALETAK

Joxe, Mondragoeko kooperatiba taldeko goi kargua, abioian sarri ibiltzen da munduko hainbat herrialdetara, haruntz eta honuntz. Joan da Sondikako aireportura eta leihatilan zegoanari esan dotsa.

- Lau maleta bialdu nahi dittut: bat Londresera, beste bat Parisera, beste bat New Yorkera eta beste bat Milanera.

Leihatilakoak, ostera, esan dotsa:

- Baña, hori eziñezkua da. Eta Joxek:
- Eziñezkua, zelan da ba hori?, joan den astian eskatzeke bialdu zostasuen-eta!

LEHENENGO ALDIZ

Joan die bi lagun mendira eta batek esan dotsa bestitari:

- Gogoratzen naiz zelan jo neban narrua hemen lehenengo aldiz.

- Bai, e? Eta zelan, ondo?

- Primeran, eta bere ama begira, gaiñera.
- Ama begira eta zuek narrutan?, hori morboa hori..., eta zer esaten zeban bere amak?
- Beeeee!

FALTA DE RIEGO

Ezetz jakin zelan esaten dan euskaraz "Falta de riego"? Oso erraza da: Iturgaitz.

Horoskopoa

Berenize

ARIES

martxoak 21-apirilak 21

Zure arazoak konpontzeko irtenbideak bilatu eta garatzeko aukera eman gogoz dizu aste honetan izango duzun pazientziak.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21

Zure alderdi tekniko eta praktikoari eman lehenetsia. Ez arduratu ezustekoak eta arazoak lehenengotan konpontzen ez badituzu, bigarren saiakeran egingo duzu.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21

Eraginkortasuna, kontzentrazioa eta emaitzak, hori da jarraitu beharreko bidea une honetan. Lagundu behar dutenei..

CANCER

ekainak 22-uztailak 22

Bogan ez dauden baloreak defendatu beharko dituzu, eta horretarako, sentimenduak alde batean utzi beharko dituzu.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22

Zure izaeraren alderdi on batzuk besteei erakutsi nahiko dizkiezu.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22

Dena zehaztasunez aztertzeke daukazun gaitasunak lagunduko dizu aste honetan zure helburuak lortzen.

LIBRA

irailak 23-urriak 22

Azaleratu zure interesak eta familia barruko arazoak. Zuk ezagutzen dituzu inork baino hobeto eta horregatik oso lagungarria izan zintezke. Irten kalera eta adieraz zaitez.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22

Bideratu zure indarra adierazpide berriak sortzera. Ez izan zure ideien sakontasunaren beldur.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21

Oso ondo dago ideia onak izatea, baina hori ez da nahikoa, praktikan jarri behar baitituzu. Helburua + Zehaztasuna = Emaitzak.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20

Zure asmoak nahiko motel dabilta, eta orain une egokia da hausnartu eta zenbait gauza berrikusteko, hankasartzerik ez egitekotan behintzat.

AQUARIUS


urtarrilak 21-otsailak 20

Gauza askotan parte hartzen duzun arren ez zara ezertan erabiltzen. Une honetan badakizu zer nahi duzun eta lortuko duzu.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20

Zure ideietan gaitzak ez zaitu lagunduko benetan bilatu eta nahi duzunean. Izan zintzoa zeure buruarekin eta borrokatu zaitez zure helburuen alde.




GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

Hitz gezidunak

	Aberats bihurtu		Egitasmoak		Ura 100°C-ra heldu
	Oinez abiatu		Gaueko argi		
	Infin., ezarri				
	Lehen biak				
Agaztiako herria	Fruitu mota				
Al. presio erroak	Ospe, sona				
Modu zizkia	Sufrea		Kiribati		
Zikindu	Iodoa		Uranioa		
				Nitrogenoa	
				Ipurtarina	
Jainko egitoarra	Bokala		Kontsonantea		Ald., Iparretarrak
Daude	Larrua		Jardun		
			Euskaraz eta kitted!		
			Sail		
Ipar. esnatu					
Amatutua					... egin, goitik ari
Zulogune			Errep., fruitu mota		
Ahrikako iriak			1		

Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola



Zein da kilometro koadroko behi gehien dituen herria?

Hamaikatz buruhauste sortu du "behi zoroen" kontuak. Eustat-en arabera, 1999an, Debagoienan 8.200 behi inguru ei zeuden. Baina asmatuko ote zenuke zein herritan dagoen behi gehien kilometro koadroko?

- Elgeta
- Aramaio
- Antzuola

Erantzun zuzena: Antzuolan, 38 behi/km; Aramaion, 26 eta Elgetan, 14.

Soluzioak



K	A	R	A	N	A	N	K
K	O	U	L	O	Z		
	V	I	L	V	Z	I	
	A	L	I	A			
	R	I	Z	A	R		
	A	E	K				
	G	U					
	R	A	V				
N	U	T	I	H	O	L	
	K	S	I	K			
	B	A	R	A	K		
	A	R	A	N	A		
	E	Z	A	R			
	I	B	I	L	I		
	A						

Bila-bila 7



Goiena Telebista

Posta elektronikoa: goitb@goiena.com

Telebegi

Fikzioak

Goienkariako zuzendariak telefonoz deitu eta zutabe honetan idaztea nahi ote nuen galdetu zidanean, berehala esan nion baietz eta eskerak eman nizkion, baina telefonoa eskegi nuenean, nire buruari galdetu nion "... eta zer idatzi behar duzu? Ai ama...! Zure lehen zutabea... glups! Beno, lasai, bihar pentsatuko duzu...". Berehala, "etxekolan" berri hau gehitu nion nire eginbeharrekoen zerrendari, izan ere oso memoria txarra dut eta libretatxo batean gauza guztiak apuntatzeko ohitura daukat. Gauera arte ez nuen libretatxoarekin topo egin.

Etxeko sofán eserita nengoen, afaldu berri, tripa beteta, eta telebista piztuta nuen. Zapeatzen nenbilen eta Antena 3n geratu nintzen.

Periodistas telesaila hastera zihoan. Ez nago telesail horri "engantxatuta", baina tira, nolabaiteko morboa ematen dit Jose Coronadok eta besteek kazetari papera nola interpretatzen duten ikusteak. Berehala konturatu nintzen fitxaje berria dutela *Cronicas*-eko erredakzioan: Maria Aboyk interpretatzen duen bekadun despistatua. Eta deformazio profesionalagatik edo, *Sorginen Laratzeko* erredakzioan izan diren bekadunekin gogoratu nintzen, eta konparatu ere bai. Ez zuten batere antzik. Zein topiko aspergarria eta injustua bekadun despistatu eta ergelarena! Zer pentsatuko zuten *Periodistas* ikusten ari ziren benetako bekadunek? Nire libretatxo hartu eta *Goienkariako* zutabea, asteazkenerako" zioen esaldia taxatu nuen zerrendatik.

Hauteskundeak 2001

Domekan, 20:00etan

Hauteskunde gaua GOITBn

Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde gauean gertatzen denaren berri izango duzue Goiena Telebistan. Gertu-gertuko informazioa zuzen-zuzenean jasotzeko, Debagoieneko herri guztietan eta Aramaion banatuko da lantaldea, uneoro herri bakoitzeko datuak eskaintzeko. Gainera, aurten, Legebiltzarrerako hauteskundeak izanik, Gorka Etxabe kazetaria izango duzu Gasteizko Lehendakaritzan, datu orokorrak zuzen-zuzenean emateko. Maria Agirre kazetari atxabaltarrak zuzenduko du saioa, eta harekin batera Mikel Irizar eta Mikel Lezamiz izango dira. 20:00etan hasiko da saioa, hauteskunde-mahaiak itxi bezain laster. Gero, zuzenean



baiza ere, Debagoieneko herrietan dauden kazetariak herri bakoitzeko emaitzak jakinaraziko dizkigute. Azken txanpan, gure platora etorriko dira legebiltzarrean izango diren hainbat debagoiendar. *Goienkariaren* ale berezia ere aurkeztuko du gau horretan aldizkariako zuzendari Eneko Azkaratek.

Mahaiaren Bueltan

Eguaztenean, 21:05ean

Herri mugimenduak

Monika Belastegi bergararrak aurkezten duen saioan Euskal Herriko herri mugimenduak izango dira hizpide. Herria Mugi! Ekimena ardatz hartuta, herri mugimenduen arteko harremanak eta lankidetzaztertuko dituzte lau gonbidatuek eguaztenean. Bestalde, herri mugimenduen osasuna, globalizazioak herri mugimenduan duen eragina, eta erakunde eta egitura sozialetan eragiteko herri mugimenduek dituzten baliabideak ere azaldu eta eztabaidatuko dituzte gonbidatuek datorren eguazteneko *Mahaiaren bueltan* saioan. Esan bezala, Goienako kazetari Monika Belastegi aurkeztua.



Asteko programazioa / Maiatza 4-10

EGUBAKOITZA 4	ZAPATUA 5	DOMEKA 6	ASTELEHENA 7	MARTITZENA 8	EGUAZTENA 9	EGUENA 10
13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Saioen errepikapena Gatza eta berakatzak, Irratiaren urteurrena, Alkatearekin berbetan, Soinuz blai	13:30 Saioen errepikapena Gatza eta berakatzak, Irratiaren urteurrena, Alkatearekin berbetan, Soinuz blai	13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Albiste aurrerapena
13:40 Gatza eta berakatzak			13:40 Gatza eta berakatzak	13:40 Gatza eta berakatzak	13:40 Gatza eta berakatzak	13:40 Gatza eta berakatzak
13:50 Sarrera doan (errepikapena)			13:50 Astebete	13:50 Goienasport	13:50 Irratiaren urteurrena	13:50 Goibegirada
20:00/20:30: Berriak		20:00 Hauteskundeak 2001	19:45 Gatza eta berakatzak	19:45 Gatza eta berakatzak	19:45 Gatza eta berakatzak	19:45 Gatza eta berakatzak
20:30 Non-zer			20:00 Berriak	20:00 Berriak	20:00 Berriak	20:00 Berriak
20:35 Berriak			20:30 Non-zer	20:30 Non-zer	20:30 Non-zer	20:30 Non-zer
21:05 Astebete			20:35 Berriak	20:35 Berriak	20:35 Berriak	20:35 Berriak
21:30 Soinuz blai			21:05 Goienasport	21:05 Xeleberri	21:05 Mahaiaren bueltan	21:05 Sarrera doan
						21:05 Soinuz blai

Barruko kontuak

LEHENDAKARITZAKO SALTSA

Mundu osoko komunikabideak izango dira domekan Gasteizen. Legebiltzarrerako hauteskundeak mundu osoan piztu dute interesa, eta komunikabide asko etorriko dira. Japoniako, Venezuelako, Mexikoko... hedabideak izango dira Lehendakaritzan. Espainiako eta Europako komunikabide garrantzitsuenek ere zuzenean egingo dituzte saio bereziak Gasteiztik. Goiena Telebista ez da gutxiago izango, eta Gasteizen izango da.

BAITA IRRATIAN ERE

Arrasate Irratiaren bidez, Goiena Telebistak hauteskunde gauean eskainiko duen saio berezia entzun ahal izango duzue. Hortaz, gau berezi horretan bi medio izango dituzue aukeran hurbileko informazioa zuzen-zuzenean jasotzeko. Hurrengo egunean, *Goienkariaren* txanda izango da. Besteak beste, ohiko kioskoetan eskuratu ahal izango duzue. Beraz, domeka gauean, Arrasate Irratian FMko 107.7an.

Kamera aurrean



"Aldaketa handia izan da; lantalde handiagoa duzu atzean eta teknologia berriek ere laguntzen dute"
Aitziber Aranburuzabala / Arrasate Irratia
"BERRIAK" (2001-05-8)



"Gure muga 2.500 biztanletan dago. Herri txikia izateari eta nortasun propioari eutsi nahi diegu"
Mireia Unamuno / Antzuolako alkatea
"ALKATEAREKIN BERBETAN" (2001-05-09)



Maider Egues

MONDRAGON UNIBERTSITATEAN

hezkuntzaren erdigunea **ZU** zara



m MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

HITZALDIA

ZERGATIK IKASI MONDRAGON UNIBERTSITATEAN

M.U.ko Errektorea den Javier Retegi Jaunaren eskutik

"Mendeberri"
heziketa proiektua

Unibertsitate Kanpus
kontzeptu berria

Gizarte eraldaketa
eta eskualde garapena

Javier Retegi Jaunak, zentruetako zuzendari eta orientatzaileei eta irakaskuntza ertainetako ikasle eta gurasoei zuzendutako hitzaldia eskeiniko du. Gazteak etorkizunari begira orientatzeko gomendioak emango ditu, M.U.k eginkizun hau nola betetzen duen azalduz. Era berean, unibertsitatearen hezkuntza eskaintza aurkeztuko du.

ARRASATE

Biteri Ikastetxe Nagusia
(Goi Eskola Politeknikoa)

**Maiatzaren 15ean,
asteartea,
18:30ean**

www.muni.es
Tel. 943 71 21 85

Atzeskua

ENEKO AZKARATE

Martin Garitano/Kazetaria

Laurogei egunean mundua ezagutzetik izan duzue? Bai, baina munduaren atal bat ezagutu dugu. Denbora justua izan dugu munduaren itzulerari buruz erreportaje erraldoia egiteko.

Zenbat herrialde ezagutu dituzue?

Hamasei eta, zalantzarik gabe, politena, Australia izan da. Niri Kuba gustatzen zait gehien, baina Australia deskubrimentu txiki bat izan da guretzat. Dena den, Mexiko eta Grezia ere ikaragarriak dira.

Unerik onenak eta txarrenak non?

Unerik onenak, euskal-

dunekin bat egiten genuenean, oso harrera hunkigarria izan baitugu. Txarrenak, berriz, janari aldetik gaizki ibili garenean, pobrezia ikaragarria ikusi dugunean... Asia, agian, gogorrena iruditu zaigu.

Toki guztietan dago euskaldunen bat?

Txinan izan ezik, egon garen toki guztietan aurkitu ditugu euskaldunak. Mundu osoan zehar euskaraz hitz egiten ibili daitekeela ere konprobatu dugu.

Zer garraiobide erabili dituzue?

Hegazkina, noski, horrelako bidaia egiteko ezinbestekoa delako, baina autoa, autobusa, motorra,

bizikleta, gamelua... Globotan, ordea, ez.

Zelan bururatu zitzazuen 80 egunean munduari itzulia ematea?

Inkesta guztietan irakurleek bidaiei buruzko informazio gehiago eskatzen ziguten, eta baita eguneroko bizitza politiko eta sozialetik pixka bat urruntzen zirenak ere. Orduan planteatu genuen honen antzeko zerbait egin zitekeela. Gero, kudeaketa arduradunek, azterketa mordo bat egin ondoren, munduari bira ematera joateko agindu ziguten. Hilabete behar izan genuen dena prestatzeko.

Zertarako balio izan dizu bidaia honek?

Seguruen mundua beste ikuspegi batekin begiratzeke, beste heldutasun batekin ibiltzen ikasteko..., lan profesionala ere beste perspektiba batetik ikusteko... Balio handiko bidaia izan da, zalantzarik gabe. Eta, gainera, duguna, gure

herria, gure jendea, gehiago maitatzen ikasteko.

Gara egunkariari errentagarri atera zaio?

Bai, Gara-rentzat ere oso errentagarria izango da bidaia. Orain bi liburutan ari gara lanean, bata nagusientzat eta bestea umeentzat.

Argal-argal eginda etorri zarete...

Zortzi eta hamar kilo artean galdu ditut. Azkenengo egunetan, Mexikon eta Kuban, bat edo bi errekupe-ratu ditut, baina egia da, janaria kontuan hartzen badugu, Euskal Herria moduko paradisuak ez dagoela. Eta kontuan hartu, bai Fermin eta baita ni ere oso jatun onak garelako, baina egunero aurrera eta atzera, behar bezalako bazkari edo afaririk egin gabe.... Horrela argaltzen da, erraz eta merke, gainera.

Berriro egingo zenuke horrelako bidaia bat?

Bai, baina adinak ere asko baldintzatzen du.



“Mundu osoan zehar euskaraz hitz egiten ibili daitekeela ere konprobatu dugu”

“Daukaguna, gure herria, gure jendea, gehiago maitatzen ikasteko balio izan digu bidaia”

“Gara-rentzat ere oso errentagarria izango da bidaia”

► Bergararra / 38 urte / 'Gara'ko zuzendariaren albokoa

AIPAGARRI



ARITZ BERRAONDO
Antzuola / Pilotaria

Bigarren mailako eskuz banakako txapelkun geratu zen joan zen egubakoitzean Donostian, Xalari 22-16 irabazi eta gero. Aritzek 24 urte ditu eta afizionatu mailan dena irabazi du. Orain, profesionaletan, bigarren mailako onena dela erakutsi du eta datorren urtean goi mailakoekin neurtuko ditu indarrak, lehen mailako txapelketan.



ALEX MUELA
Bergara / Musikaria

Bergarako Cool Panic taldeko Bkitarra jolea da Alex. Kike Turmix-en (Pleasure Fuckers) disketxearekin, Saffley Pin-ekin, estraineko diskoa, *Made of stone* izenekoa, kaleratuko dute aurki. Taldea Alexek berak eta Itziar Iturbek, Aitor Pedrejonek eta Iker Narvaezek osatzen dute. Aipatu disketxeak nazioarte mailako taldeekin egiten du lan gehienbat. Estatuan, The Hot Dogs taldearekin bakarrik atera du diskoa.

Lanbide Heziketa



Ingurugiroa

- Ingurugiro kimika
- Ingurugiro osasuna



Eraikuntza eta obra zibilak

- Eraikuntza proiektuen garapena eta aplikazioa



Osasungintza

- Erizaintzako zainketa laguntzaileak
- Osasun-dokumentazioa



Gorputz eta kirol ekintzak

- Gorputz eta kirol ekintzak sustatzea



Arizmendi
ikastola
LANBIDE HEZIKETA

Arizmendi, Koop. E.
Tel: 943 77 20 25
Faxa: 943 77 00 73
arizmendi@sarenet.es
http://www.arizmendikoop.com



Batxilergoak

Natur eta osasun-zientziak

- Osasun zientziak
- Osasun zientziak + zientzia teknika
- Zientzia teknika

Giza eta gizarte-zientziak:

- Gizarte zientziak
- Gizarte zientziak + giza zientziak
- Giza zientziak

Teknologikoak:

- Zientzi teknika



Arizmendi
ikastola
BATXILERGOAK

Arizmendi, Koop. E.
Tel: 943 71 49 07
Faxa: 943 71 41 08
arizmendi@sarenet.es
http://www.arizmendikoop.com

